



JOSETXO ARANTZABAL

## 500 lasterkari Soraluze-Bergaran

Bihar, zapatua, jokatuko da Antxintxika krosa; aurten, lehenengoz, patinatzaileekin | 17

175.000 euro ordainduko ditu Udalak Domingo Iturbe eraikinagatik | 15



Erretiratuen taberna adjudikatu nahi du Eskoriatzako Udalak | 12



Esne Beltza taldeak kontzertua egingo du gaur Espaloian | 18

## Arrasateko XIII. mendeko harresi zatia bistan geratu da



Harresi zatia. | J.B.

## "Isurketa baten ondorioz hil ziren Deba ibaiko arrainak"

Kiko Alvarez | Biologoa | 4



## Ekintzaileentzat lokalak daude Bergarako azokan | 9



## Urtarrilean estreinatuko dute kiroldegia aretxabaletarrek

Hiru solairuko kiroldegi dotorea egin dute: hiru igerileku, spa gunea, rokodromoa, kantxa eta 300 lagunendako harmailak, eguzkia hartzeko gunea, erabilera askotariko aretoak... Hamahiru milioi eta erdi pasatxoko aurrekontua izan du Galdeano enpresak egin duen eraikinak eta lanak abendu erdirako bukatzea aurreikusita dago, urtarrilean zabaltzeko. | 11

Asier Muxika, kirol teknikaria; Ana Bolinaga, alkatea; eta Tomas Fernandez, Kirol zinegotzia; asteen kiroldegiko lanetara egindako bisitaldian. | MIRARI ALTUBE

### SINADURAK

	JUAN MARTIN ELEXPURU   6
	6   ARANTZAZU EZKIBEL
	ENEKO BARBERENA   8
	12   JUAN LUIS ZUBIZARRETA
	IDOIA ETXEBERRIA   40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 6 | HERRIAK 7 | KIROLA 16 | KULTURA 18 | ZURE IRAGARKIAK 19 | TELEBISTA-IRRATIA 20 | EZKONTZAK 21 | ESKELAK 21 | NON-ZER 22



**Azaroaren 5 eta 6an Bergaran izango gara!**

**Etorri zuen lagunak animatzera.**

**Bergara eta Antzuolako** partaideok, eman azken errepassoa abestiari eta koreografiari!

Abestien letrak eta koreografiaren bideoak <http://zugaz.com/blog>

943 25 05 05

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

# "Munduaren merkatuan" 25 urte

Mondragonek aurre hartu zien Txinaren hazkunde urteei, eta fruituak jasotzen dihardu

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Txinan, negozioetan aurrera egiteko, ez dago formula magikorik, baina bai betebeharrak: bat etxeko lanak ondo eginda izatea. Horixe da Mondragon Korporazioa Jokin Laspiurrek Txinara edo beste edozein herrialdera joan gura duten enpresendako daukan gomendioa. Horrez gain, "enpresa guztiek ez dute zertan Asian egon", bere iritziz, baina "akats handia da gaur egun Txina kontuan ez hartzea". Era berean, mundua astintzen ari den krisiak min txikia egin dio Txinari, baina hara joan diren euskal enpresek ere hobeto eutsi diote.

Mondragon Korporazioak 25 urte daroa Txinan, baina herrialde horren eta Asia osoaren boom-a azken urteotan izan da, batik bat. Goraldi horren hasiera aldean, orain zazpi urte, "birritan pentsatu barik" joan zen Laspiur Txinara, Mondragonek proposatu zionean. Orain, 31 urteko arrasatearra Mondragon Internacional adarrean Asiako erosketen esparruaren zuzendaria da, eta han zelan hasi diren kontatzen digu: "Shanghai da gure zentrala Txinan, eta hortik herrialdean bertan beste ordezkariak batzuk zabaldu ditugu, baina baita Indian, Vietnamen eta Taiwanen ere". Ordezkaritza korporatiboa Pekinen, hiriburuan dute. Horrez gain, Kunshanen dagoen parke industrialak azaroan bertan egiten dituen lau urte.

**Hazkundera Txinan eta hemen**  
Munduko finantza krisiak gutxi eragin dio Txinari. Baina hara

joan diren enpresek ere hobeto eutsi diote krisiari: "Han dauden enpresak hazi egin dira, baina garrantzitsua da ere enpresa horiek hemen duten filiala ere hazi egin dela. Gure enpresa askok etxeko lana ondo eginda zuten eta krisia ez dute hainbeste igarri", esaten du Laspiurrek.

Kontuan izan behar da, berak dioskun moduan, "Espainiako merkatua, sektore batzuetan, erdiraino murriztu dela". Horren parean, "Txinak ez du frenorik. Adibidez, makina-erremintan, orain urte batzuk, munduko %4

zen Txina, eta gaur egun %40 da. Automobilgintzan ere, Ameriketara eta Europan baino auto gehiago egiten da Txinan".

Horrek esan nahi du Txina ez dela izango "munduaren lanategia, baizik eta munduaren merkatua". Izan ere, Txinaren helburua da "bere barne merkatua gero eta handiagoa eta kualifikatuagoa izatea". Horregatik, hara joaten dira enpresak, "konpetentzia, orain, han dagoelako".

#### Enpresendako zerbitzuak

Kunshango parke industrialak 2007ko azaroaren 14an inauguratu zuten. Lau urtean, asko hazi da. Jokin Laspiurrek gogoratzen duenez, "hasieran bakarrik bi enpresa zeuden, Wingroup eta Orkli, premia batzuekin eta aukera batzuekin. Gero, Oiarso eta Orbea gehitu zitzaizkien eta lau horiekin hasi zen parkea".

Pixkana-pixkana, kooperatiba eta enpresa gehiago joan dira lantegiak eta ordezkariak irekitzen Kunshanen; azkenaldian, Fagor Ederlanen kasua da aipagarrienetariko bat. Kunshango parkea, hasieran 85.000 m<sup>2</sup> urbanizaturarekin, lau kooperatibaren filialekin eta 650 langilerekin hasi zena, beste 400.000 metro koadrotan handitu zuten.

Hazkunde hori ez da bakarrik korporazioarena: Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena egin zuen Mondragonek, Txinara joan gura zuten euskal enpresei laguntzeko. Gaur egun, Mondragonek hiru zerbitzu eskaintzen dizkie enpresei: kontsultora gisa, kokapen, inbertsio eta ezarpen ikerketak



Jokin Laspiur, negozio batzar baten, Txinan. | MONDRAGON

egiten ditu, eta enpresen erregistroa ere badaroa; bestalde, erosketa zerbitzua ere ematen du; eta Kunshango parke industrialean egoteko aukera ere bai.

#### "Gazteak anima daitezela"

1.500 langile ditu Mondragonek Txinan. Gehienak txinatarrak dira, baina hantxe bizi eta lan egiten duten 40 euskaldun inguru ere badaude. Euskal Etxea dute Shanghain, eta hara doazenez beste euskaldun batzuen laguntasuna ere topatzen dute. "Oraindik kostatzen da" Txina

nara joateko gertu dagoen jendea topatzea, Jokin Laspiurrek dioskunez, baina berak "animatu" egin nahi ditu, batez ere, gazteak, eta ez Txinara bakarrik: "Oraingo gazteriak izan beharko luke kanpora joateko bokazioa eta interesa. Hemendik urte batzuetara ez dakigu non egon behar garen, eta garrantzitsua da jendea joateko gertu egotea". Bere iritziz, euskal industria "indartsua da eta produktu oso onak egiten ditu, baina beti dago beste pauso bat aurrera emateko aukera".

DATUA

**1.500**

LANGILE

Mondragon Taldeak 1.500 langile ditu Txina osoan; horietatik, 40 inguru Euskal Herritik joandakoak dira.

DATUA

**%40**

MAKINA-ERREMINTAN

Hazten hasi aurretik, makina-erremintan %40ko pisua zuen Txinak; gaur egun, berriz, %40 da.

JOKIN LASPIUR | ASIako EROSKETEN ARDURADUNA

## "Txina aukera ona izan daiteke, baina ez hemengo arazo baten soluzioa"

Jokin Laspiurren esanetan, "Txinan ere gerta daiteke urte osoan lan bila ibili eta ezer ez topatzea".

#### Txina mirakulu ekonomikoa da?

Ez, nik ez dut horrela ikusten. Jakinekoea zen Txina izugarri hazi behar zela. Nik ez diot derrigorrez Asian egon behar garenik, baina bai mundu osoa kontuan hartu behar dugula, eta Txina, orain, munduko 2. indar ekonomikoa da.

#### Lanik ez duen norbaitendako, Txina irtenbidea izan daiteke?

Txinan aukera mordera dago, eta hara joatea aukera ona izan dai-




Jokin Laspiur, I.L.K.

teke, baina hura ez da hemengo arazo baten soluzioa. Badago hemen hiru hilabetez txineraz ikasi eta lan bila joaten den jendea; baina gerta daiteke urte betean lan bila ibiltzea eta ezer ez topatzea.

#### Ze eragin du hango erregimen politikoak negozioetan?

Lehen, enpresa publikoak indar handiagoa zuen orain baino. Orain enpresa pribatu gehiago dago publikoak baino. Politikoki komunista da, baina han egonda ez da igartzen, negozioak egiteko orduan.



## MASAJE ESKUSIBOA

Gure masaje berria proba ezazu,

**%30**eko  
deskontuarekin\*

\* Lehen 15 bezeroendako bakarrik.



# Janire Rivera hezur-muina nork emango zain dago

31 urteko gazteak duela lau urte diagnostikatutako hezur-muineko aplasia du

M.B. | ARRASATE

Hezur-muineko aplasia du Janire Rivera 31 urteko Bilboko gazteak, duela lau urte diagnostikatuta. Horren ondorioz, odol-eko zelula guztiak sortzeaz arduratzen diren hezur-muineko zelula amak desagertu egiten zaizkio. Haren organismoak ez du globulu gorri ez zuri nahikorik sortzen, ezta plaketarik ere. Hori horrela, oso erraz nekatzen da, palpitazioak ditu eta zorabioak eta buruko minak izaten ditu. Odol jarioak ere izaten ditu, infekzioak izateko arriskua dauka -gibel eta giltzurrunetakoak, esaterako-, eta baita leuzemia izatekoa ere. Ondorioz, ezin du bizimodu normalik egin; ezin du lanik egin, kirolik egin...

**Aukera bakarra, transplantea**  
Hezur-muin transplantea da Rivera sendatzeko aukera bakarra: "Diagnostikatu zidatenean, tratamendu immunosupresorea



Janire Rivera. | MONIKA BELASTEGI

egin zidaten eta kasuen %80an funtzionatzen du, baina nirean ez". Oraindik ez du emaile bate-ragarririk aurkitu eta horregatik hara eta hona dihardu emaile egingo diren pertsonen bila: "Eta mutil-laguna oñatiarra izanda, Debagoienara ere etorri naiz" dio. Izan ere, "hezur-muin emaile gutxi dago". Interesatuek Gipuzkoako transplanteen koordinazio bulegora dei dezakete: 943 00 70 00.

# Irekitako aukera historikoa egoki baliatzeko konpromisoa hartu dute Bilduko hautetsiek

Aterabide demokratikoaren norabidean euren esku dagoen guztia egingo dutela esan dute

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Euskal Herria garai historiko berri baten atarian sartu dela eta, Debagoieneko Bilduko hautetsiek adierazpen instituzionala egin dute. Haien esanetan, "azken bi urteetan Euskal Herrian izan diren aldaketa politiko eta sozialerako prozesuaren ondorioz ireki den egoera berriak, Nazioarteko Konferentzian islatu zen atzerriko adituen inplikazioak eta ETAREN erabakiak ilusioa eta itxaropena ekarri dizkiote Euskal Herri osoari". Gehitzen dutenez, ETAK hartutako erabakiak konfrontazio armatua behin betikoz amaitzea dakar eta konfrontazio horrek sortu dituen ondorioei buruzko elkarrizketari ekiteko garaia iritsi dela uste dute.

**Gernikako Akordioa bete**

Urte luzeetako gatazkak sufrimendu handia eragin duela uste dute. Hori dela eta, "lehenbailehen horiei heldzea eta gure herrian normalizazioa, errekonziliazioa eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea eskuratzea atzera ezinezko lana da". Hori

horrela, gizarte osoak berea sentituko duen behin betiko bakea lortzeko beharrezkoak diren oinarriak jartzeko Euskal Herriko eragile askoren babesa duen Gernikako Akordioak exijitzen dituen neurri guztiak betetzea beharrezkotzat jotzen dute. Era berean, gatazkaren ondorioei helduko dien elkarrizketari ekiteko deia luzatu nahi diete Espainiako eta Frantziako gobernuari eta "arduraz joka dezatela" esan.

Edonola ere, ez dute uste ETAREN erabakiak gatazka politiko desagerraraziko duenik. "Euskal Herria herri bezala aitortua izateak eta bere etorkizuna libreki erabaki ahal izateak soilik berma dezake behin betiko konpromisoa politikokoaren gainditzea" diote.

**Elkarrizketa abiarazteko unea**

Irekitako prozesuan guztiok parte hartzeko garrantzia ere azpimarratu dute adierazpenean: "Gure Herrian nazio identitate edota ikusmolde ezberdinetako herritarrek bizi dira. Horiek ordezkatzeko dituzten alderdi ezberdinak ere badira. Denok gara euskal

herritarrek, denoi dagokigu irekitako prozesuan parte hartzea". Hala, elkarrizketa politikoari ekiteko garaia dela uste dute; eragile eta alderdi politikoei dagokien negoziazio politiko abiatzeko.

Abiatu beharreko elkarrizketa horrek bazterketa, beto eta mugarik gabekoa izan behar duela ere azpimarratzen dute, eta baldintza bakarra izango duena: "Euskal eragileek gatazka politikoaren oinarrian dauden arazo politikoei bilatu beharko dieten aterabide politiko denok defendatu eta errespetaraziko dugula".

Edozein modutan ere, azken hitza "herritarren esku" laga behar dutela ere uste dute, "hori delako, eta ez besterik demokratizazio oinarritutako bakea eraikitzea".

**Lanerako konpromisoa**

Aro historikoa ireki den neurrian, bailarako Bilduko hautetsiek uste dute aukera historikoa dutela "aukera hori arduraz baliatu eta bururaino eramateko. Eta hori horrela izateko "euren esku dagoen guztia" egingo dutela esan dute. Hala, "udaletan eta esandako norabidean lan egiteko konpromisoa" adierazi dute.

Bukatzeko, dei egiten diete herritarrei prozesua bultzatu, babestu eta sostenga dezaten: "Bakea, demokrazia eta askatasunera eramango gaituen itsasontziak herritarren parte hartze eta bultzada beharrezkoa ditu. Bultzatu dezagun, beraz, denok aterabide demokratikoaren norabidean".

# Azaroan pintxo-igandeak Elgetan

## AZAROAK 6

10:00 Bisita gidatua Intxortako gerra-gunera.  
10:30 Beteranoen pilota txapelketa.  
12:00 Perretxiko erakusketa.  
12:00 Pintxo lehiaketa.  
12:30 Trikitilariak.

## AZAROAK 13

10:30 Beteranoen pilota txapelketa.  
12:00 Argazki rally lehiaketa.  
12:30 Trikitilariak.  
Tabernetan lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera: 1€.

## AZAROAK 20

10:30 Beteranoen pilota txapelketa.  
12:00-13:00 Umeentzako jolasak.  
13:00 Bertsolariekin poteoa.  
Tabernetan lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera: 1€.

## AZAROAK 27

10:00 Bisita gidatua Intxortako gerra-gunera.  
10:30 Beteranoen pilota txapelketa.  
12:30 Trikitilariak.  
Tabernetan lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera: 1€.

ANTOLATZAILEA:



ELGETAKO UDALA  
Kultura eta Turismo batzordea

LAGUNTZAILEAK:

Haizea  
Espaloia  
Iñaki

Bolatoki  
Maialde  
Patxi

Kiko Alvarez | Biologoa

# "Isurketa baten ondorioz hil ziren Deba ibaiko arrainak, ziurtasun osoz jakitea zaila den arren"

- Biologian doktoreak dio Deba ibaiaren erriberen "kontserbazio egoera negargarria" dela
- "Garrantzitsua da ibaiak ikustea gure laguntza behar duten sistema bizidun gisa"

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Biologian doktorea da Kiko Alvarez bergarra. Azkenaldian Deba ibaian hilik agertu diren arrain eta ahateen gainean egin dugu berba harekin. Deba ibaiaren errekuazioaren gainean, oro har. Araztegien, kolektoreen, ur saneamenduaren inguruan...

**Bergaran hainbat arrain hilda agertu dira. Zein izan daiteke horren arrazoia?**

Oso zaila da ziurtasun osoz jakitea, baina, seguruen, isurketa baten ondorioz izan zen. Horri gehitzen badiogu uraren kalitate eskasa, bada, heriotza-tasa hori izan zen emaitza.

**Diputazioak eman duen azalpenagatik izan da sikateagatik ur gutxi ziholakoa, ura zikina zegoelako (ur fekalen kontzentrazioa ur eskasiagatik) eta ura beroa zegoelako. Arrazoizkoak dira azalpen horiek?** Neurri batean bai, hori izan daiteke arrazoia, baina hori ez da nahikoa ikusi dugun heriotza-tasa azaltzeko. Lehenago aipatu dudan moduan, ziurrenik, heriotza-tasa isurketa baten ondorioa izan da. Garrantzitsua da gure ibaiak ura garraiatzen duten kanal simple edo hondakindegiz ez kontsideratzea eta gure laguntza behar duten sistema bizidun gisa ikusten hastea.

**Deba ibaia errekueratzen doa?**

Bai. Poliki-poliki errekueratzen doa. Baina arazo batzuei aurre egin behar die, uraren kalitateaz gain. Adibidez, erriberen kontserbazio egoera negargarria da. Erriberaren basoetako zati txiki bat geratzen zaigu eta erriberak, tarte askotan, espezie exotiko inbaditzailez josita daude: arka-ziak, reinutriak...

**Noizko errekueratuko da guztiz gure ibaia?**

Oso zaila da guztiz errekueratzea, faktore askoren eraginagatik. Araztegiak martxan hasten dire-



Kiko Alvarez biologian doktorea da. | GOIENA

nean, uraren kalitate fisiko eta kimikoa hobetuko da eta, neurri batean, horrek haren kalitate biologikoa hobetuko du. Hala ere, berreskuratze ekologikoa askoz konplexuagoa da eta denbora luzeagoa beharko da.

**Eta zer egin behar da Deba ibaia duela 100 urtekoa modukoa izan dadin?**

Erreka unitate arro hidrografiko gisa kontsideratu behar da eta ez ibai bezala bakarrik. Esate baterako, ibaiaren arroan egiten den basoko kudeaketa funtsezkoa da ibaiko ekosistema osasuntsua eta uraren kalitate ona edukitzeko. Horretaz gain, lehen aipatutako faktoreei aurre egin behar zaie. Hau da, erriberaren basoa

berreskuratu, espezie inbaditzaileak erazi... beste neurri batzuen artean.

**Ze fauna dago Deba ibaian?**

Erreken oheburuak salbuestean, faunaren komunitateak oso sinplifikatuta daude. Ia-ia bakarrik espezie oportunistak, ahateak-eta, ikus ditzakegu.

**Amuarrainik? Ezkailurik? Bestelako arrainik?**

Gero eta gehiago, aingirak ere ikus ditzakegu.

**Ibaieren tarte guztietan daude?**

Ez, espezie bakoitzak bere beharrak ditu. Adibidez, amuarrainek zati garbiagoak eta oxigenatuagoak bilatzen dituzte, nagusiki erreka oheburuetan. Beste aldetik, ezkailluak toleranteagoak dira eta leku gehiagotan ikus daitezke.

**Ze tarte dago garbien?**

Garbienak erreken oheburuetan daude, Oñati, Aramaio eta Gatzagan gora. Kutsatuena Arrasatetik behera dagoena da.

**Inoiz bainurako ezagutu eta erabili ahal izango dugu?**

Bai. Zergatik ez. Gure administrazioek europar arautegia betetzen badute, 2015erako urek egoera kimiko eta ekologiko ona izan beharko dute. Aurreikuspen baikorregia da hori, dena den.

**Uraren kalitatea garbia izanda ere, plastikoak eta bestelako zaborrak nonahi daude eta azpiak kutsatuta jarraitzen du.**

Berreskuratze lanak sentsibilizazio kanpainekin lagundu beharko lirake. Planteamenduak orokorra izan behar du, arro hidrografikoaren eta arroaren inguruko biztanleekin lan egitea funtsezkoa da.

**Ahateak hiltzearen arrazoia?**

Oso zaila da jakitea; gainera, ahate hauek denetik jasan izan dute aurretik. Baina, hiltzeko eragatik eta gertaeraren azkartasunagatik, infekzio prozesu bat izan dela esatera ausartuko nintzateke.

**Araztegiak martxan egonda, konpunduta dago Deba ibai kutsatuaren arazoa?**

Uraren kutsaduraren arazoa, ziur asko, baina Deba ibaiaren ekologiaren arazoa ez. Hori konpontzeko, konpromiso argia behar da administrazioen aldetik eta apustu gogorra gure ondare naturala berreskuratze eta kontserbatzeko. Hori, zorritzarekin, oraindik ez da ikusi.

**Ibaia garbitzeko orain arte egin diren ahaleginak egokiak dira?**

Denborak esango digu. Edozein modutan, neurri horiez gain, ibaiko ekosistemaren kudeaketa integralari bideratutako beste neurri batzuekin lagundu behar da.

**"Oso zaila da ibaia guztiz errekueratzea, faktore askoren eraginagatik"**

**"Erreka unitate arro hidrografiko gisa kontsideratu behar da, eta ez ibai bezala bakarrik"**

**"Ahateak hilda agertzearen arrazoia infekzio prozesu bat izan dela uste dut"**


UMIE

## Deskontu-bonu bat jaso nahi?

Bidali zure datuak ondoko e-mailera, Gaia: DESKONTUA  
umearrasate@gmail.com

Garibai 6 • 943 79 97 86 • 20500 • ARRASATE

# Debagoieneko GREMIOAK



## ARROZTEGIAK

### AZKARATE ARROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa  
Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

### OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

### URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

### ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINNTZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate


- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
http://goiena.net/iritzia/



## Iruña-Veleia: herri-lotsa

Korapilo batzuk hasi gara askatzen, beste batzuek gogor jarraitzen dute. Azaroan betetzen dira hiru urte Iruña-Veleiako auzia lehertu zenetik: Arabako Diputazioak izendatutako Batzordeak gure herriarentzat eta hizkuntzarentzat oso inportanteak izan litezkeen aurkikuntzak faltsuak zirela erabaki zuen. Diputazioak kalera bidali eta epaitegietara eramán zituen arkeologoak berehala.

Hiru urtean ez da faltsutzailearen arrasto txikienik aurkitu eta ez da argudio berri bakar bat ekarri; bitartean 17 txosten mardul ondu dituzte 9 naziotako hainbat ikerlarik benetakoak izan daitezkeela jakinaraziz.

Izen handikoak dira horietako asko, eta inork ez du ezer kobratu bere lanarengatik. Baina euren argudioak ez direla aski eta laborategiko frogak egin behar direla diote denek, auzia betiko argitu dadin.

Aldi berean, aztarnategiko zuzendari berria den EHUko irakasleak sekulako txikizioa egin du hondeamakina handi bat erabiliz. EHUko zenbait filologo eta arkeologo dira auzi negargarri honen arduradun intelektualak. Errektoretzaren babesa izan dute eta beste irakasleen onospena edo isiltasun konplizea. Alferrik saiaturko zara auzia barrutik mugitzen edo eztabaida publikoa bultzatzen. Inork ez daki ezer, inork ez du ezer jakin nahi jakintzaren tenpluan. Eta arduradun politikoak ez dira PP edo espanyolistak. Gobernu abertzale batek hartu zituen erabakiak, eta gaur egun ezkerrekoa eta abertzalea den koalizio bateko batzarkidea zen garai hartan kulturako diputatu anderre. ANVko batzarkideen babesa ere izan zuen.

Aipatu genezake euskarazko egunkari bakarraren jarrera ere, eta euskal argitaletxe indartsuenarena, honek atera baitzuen hango kazetari ohi baten liburua, eta komikigile baten graziak, eta abar, baina gaurkoz nahikoa lagun egingo genuen.

Azaroaren 14an hitzaldia Bergaran, *Zer gertatzen da Iruña-Veleian* titulua.

"Hiru urtean ez da faltsutzailearen arrasto txikienik aurkitu"

## USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

## Borondate kontua be bada

Atez atekua Oñatin jartzia da Mankomunitatiaren aukeretakoa bat. Polemika haundia sortzen dauen gaia da. Zaborrarena kontzientzia kontua eta borondate kontua da. Aste bukaeran mahaixan bueltan gai hori izan geben: batzuk esaten ebein instituziñuen kontua izan biharko litzakie-la zaborra banaketia; hala, gainera, lanpostuak sortuko ziala. Nik, ostera, uste dot gure arduria dala. Herritar moduan dakun arduria da sortzen dun zaborra banatu, birziklatu, eta ahal dan neurrixan berrerabiliztia. Atez atekua zaborra kudeaketako sistema ona dala ikusi da Antzuolan. Oñatin be sistema berrira ohittuko gara, beste gauza askotara ohittu izan garen moduan.

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



## GUTUNAK

## Kirol bitxia jaio da Antzuolan: poltsa-jaurtiketa

Jon Kortabarria  
Antzuola

Erratuta ez banabil eta Debagoieneko Mankomunitateak dioena egia bada, Debagoienean eta, beraz, Antzuolan sortzen ziren hondakinen %29 baino ez zen selektiboki jasotzen.

Alabaina, 2011ko martxoan, atez ateko bilketa-sistema ezarri zen gure herrian.

Hasierako arazoak arazo, apurka-apurka sistema optimizatuz joan da, eta herritarren eta Udalaren arteko elkarlanarekin %92koa izatera heldu da modu selektiboan jasotzen den hondakin-kopurua.

Beraz, esan daiteke herritarroei eskaini zaigun sistema honekin gure ardura modu eraginkorrean betetzen dugula; ingurumenean dugun eragina nabarmen murriztuz.

Horrela, harro sentitzen naiz antzuolarra izateaz; harro Gipuzkoan hondakin gutxien botatzen dituen herrikoa izateaz.

Baina, edozelan ere, kezkak

ere sorrarazten dizkit atez ateko bilketa-sistemak.

Azkenaldian, errekarra so egitean, maiz ikusten ditut hondakin-poltsak; are gehiago, noizbait, balkoi edo leihoren batetik poltsak errekarra jaurtitzen dituenik ere ikusi izan dut.

Noski, haiek ni parean iragaten naizela ohartu ez arren, guztiz txunditurik utzi izan naute.

Honenbestez, badira herritar batzuk gure ingurumen-inpaktua gutxitzen laguntzen digun tresna erabili ez eta, gainera, hondakinak ikaragarriko kaltea eragiten duten lekura botatzen dituztenak.

Hala, jokamolde hori irain gisa hartu beharko genuke gainontzeko herritarrok; eta irain horien aurrean erantzun.

Horretarako, eta adibide gisa, bururatzen zait jokaera hori duten herritarren atarietan argazkiak jartzea.

Era berean, modu ez-zuzenean Udalarira portaera hauen berri ematen lagun genezake, eta Udalak herritar horiek kontzientziatzeko neurriak hartu.

Pentsatu nahi dut gizarte-presio eta lotsarazte anonimo horiekin arazoa

konpon daitekeela, denboraz eta pixkanaka-pixkanaka guztiok heziak izan baikaitezke, zigor ekonomikak saihestuz.

## Horretarako birziklatzen dugu?

Eneko Agirre  
Oñati

Urriaren 24a, Udanan gora noa, nire autoan.

Aurretik plastikoa batu berri duen kamioia daukat, goraino beteta.

Bat-batean, denetariko plastiko zatiak irteten hasi dira eta errepidea kakazten ari da.

Haizea dabil, baina ez horrenbestearainokoa.

Lotsagarria da ikusten ari naizena: oñatiarrok majo birziklatzen dugu; total, gero, kamioilari batek guk edukiontzietan utzitakoa hara eta hona zabaltzeko.

Mesedez, kamioilari, hurrengoan kontu handiagorekin ibili, oñatiarrok onerako, ingurumenaren onerako eta, noski, munduaren onerako.

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Maria Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.


**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:** Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com


**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale.  
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako inntzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# HERRIAK

**ESKORIATZA**

## Diru gutxirekin asko egin daitekeela agerian utzi dute

Parte-hartze prozesuaren harira, gizarte ongizateaz jardun zuten herenegun

**MIRIAN BITERI | ESKORIATZA**

Martxan da Udalak bultzatutako parte-hartze prozesua Eskoriatzan. Eguazten arratsaldean egin zuten lehen batzarra: gizarte zerbitzuen gainean luze egin zuten berba kultura etxeko areto nagusian batu ziren 25 eskoriatzar inguruk. Honakoak izan ziren, besteak beste, batzarrean: Beñat Herce alkatea, Arantza Iregi Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia, Aukera Berdintasun Zerbitzuko Itziar Martinez zinegotzia, Gizarte Zerbitzuetako langile Agurtzane Altube eta Beronika Solaguren, Prebentzio teknikari Monika Beltran de Heredia, herriko medikuak, abadea, Luis Ezeiza ikastetxeko zuzendaria eta ikastetxe bereko guraso elkarteko presidentea eta Olazar, Caritas eta beste elkarte batzuetako ordezkariak. Gaixorik edo mugitzeko zailtasunak dituzten umeen gurasoak ere izan ziren; tartean, Aratz Aldai mutikoaren ama.

Kafea ondoan zutela, lau taldetan banatu ziren parte-hartzaileak. Arloka egin zuten lan: etxebizitza eta dirulaguntzak; immigrazioa, langabeak eta formazioa; droga-menpekotasuna eta berdintasuna; eta pertsona nagusiekin lotutako gaiak. Bi ordu luzez hitz egin ostean, botatutako proposamen guztiak batu zituzten udal langileek.

**Alokairuak garestiegiak**

Etxebizitzaren harira, parte-hartzaileek agerian utzi zuten alokairuak "nahiko" handiak direla herrian, eta horiek orekatzeko beharra azpimarratu zuten. Intxaurtxuetan amaitu barik duden etxebizitzaren gainean ere jardun zuten. Dirulaguntzei dago-



Eguazten arratsaldean, Gizarte zerbitzuetako batzarrean izandakoak. | MIRIAN BITERI

### Hilaren 12an, kiroldegira

Datozen egunotan ere batzarrak izango dira: gaur, 19:00etan, Partehartzea eta Komunikazioa landuko dute kultura etxean; martitzenean, 18:00etan, Garapen Jasangarria Ibarraundin; eta eguaztenean, 19:00etan, Hirigintza kultura etxean.

Bestalde, azaroaren 12an herritar guztiei zabalik egongo den ekitaldian parte hartzeko deia egin du Udalak. *World Cafe* saioa egingo da kiroldegian, 10:00etatik 13:00etara.

kienez, jarraitu beharreko prozesua askotan oso luzea dela nabarmendu zuten. Laguntzekin jarraituz, arazo fisikoak eta psikologikoak dituztenendako laguntzak eskaintzea proposatu zen, eta baita horren gaineko sentsibilizazioa bultzatzea ere.

**Immigrazio batzordea**

Immigrazioari dagokionez, etorkinak, eta bereziki, haien umeak gizarteratzearen garrantzia azpimarratu zuten. Arlo hori hobeto lantzeko batzordea osatzeko proposamena egin zuten. Elkarrekin bizi izaten ikasteko beharra ere irten zen batzarrean.

Bestalde, gaur egungo egoerak bultzatuta langabeziaren harira "zerbait" egitea oso zaila dela onartu bazuten ere, gaineratu zuten formazioa eta lana topatzeko neurriak bultzatzen jarraituko dutela. Horren harira, denbo-

raren bankua bezala ezagutzen dena osatzea erabaki zuten; hain justu ere, elkartrukean oinarritutako lanak sustatzea proposatu zuten.

Arazo fisikoak eta psikikoak dituztenen zuzendutako hainbat neurri ere aipatu ziren: umeendako ziburu egokituak jartzea, igerilekuko uraren tenperatura igotzea hotz gera ez daitezen edo gimnasio egokituak egitea.

Droga-menpekotasunari dagokionez, alkoholaren kontsumoak gora egin duela ohartarazi zuten. Horren aurrean, prebentzioan lan egitea eta gazteeendako aisialdi ekimenak egitea proposatu zuten. Horretaz gainera, herrian borondatezko lana bultzatu beharra dagoela ere ikusi zuten. Bestalde, berdintasunaren alorrean genero-indarkeria agerian utzi beharra dagoela azpimarratu zuten parte-hartzaileek.



**JASONE ORBEGOZO**  
OLAZAR

"Oso interesgarria izan da eta ilusioa daukat zerbait irtengo dela hemendik. Arlo guztietan egin dira proposamen interesgarriak: agian, atzerritar, langabezi edo nagusiekin lotutakoak aipatuko nituzke".



**NESTOR ARANA**  
LUIS EZEIZAKO GURASOA

"Etorri aurretik ez nekien nondik nora joko zuen, eta asko gustatu zait; bereziki, landu diren gaien sakontasuna eta Eskoriatzak norantz joan behar duen. Elkarren eztabaidatzeko aukera izan dugu".



**MARISOL ANDRADE**  
UME ELBARRI BATEN AMA

"Oso ondo joan da egin dugun bilkura. Batzarra egin behar zela jakin nuenean, berehala erabaki nuen etortzea. Nire ustez, herriarendako diren gauzetan eskoriatzarrok hartu behar dugu parte. Beharrezkoak dira horrelako ekintzak egitea herri mailan".



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**



Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13



Harresi zatia, irudi handiaren eskuinaldean. Txikian, dendaren kokapena. | J.B.

# Harresi zati berri bat bistan geratu da Portaloian

Arropa denda bat berritzeko lanetan aurkitu eta obra geratu zuten; denondako ikusgai utzi gura du jabeak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Portaloian ondoko arropa denda bat egokitze lanak egiten zihardutela, Arrasate babesten zuen XIII. mendeko harresiaren zati batekin

egin dute topo. Duela hilabete inguru konturatu zen Hirigintza Saila lehen paper denda eta bidai agentzia bat zegoen lekuan, sotoan, harresi zati bat zegoela. Jose Angel

Barrutiabengoa Aranzadiko kide eta gaian adituak eman zuen aurkikuntzaren berri udaletxean. Oraindik ez dute azterketa arkeologikorik egin baina Barrutiabengoa harresi zatia dela berretsi du: "Argi dago harresia hortik pasatzen zela; hor ikus daitekeen zatia harresiarena da".

## Harresi zatia eraikin barruan

Bestalde, Arkeolan arkeologia fundazioko kide Mertxe Urteagak azaldu digu Arrasate erre ostein, 1448an, egurrezko eraikinak egitea debekatu eta harresia bera aprobetxatzen zela etxeak egiteko. Urteagak gaineratu du harresi zatiak eraikinen barruan oztopo bihurtu zirenean pixkanaka harresia desagertzen joan zela. Horregatik ez daude adibide larri eraikin barruko harresi zatiekin; Harresi aretoko zatia da adibide garbientako bat.

Alde zaharrea beste zenbait adibide ere aurki daitezke, baina ez da ohikoa harresiaren zati berriak aurkitzea. Hauexek dira azken aztarna berriak.

## Dagoenetan utzi, babestuta

Aurkikuntzak lanak geldiarazi ditu eta hori "oztopo" bat izan da denda berria ireki gura duen jabearendako. Lanak ahalik eta gutxien atzeratzeko dendako jabeak Udalarari proposatu dio harresi zatia dagoenetan utziko duela, kristal batekin babestuta, eta gero denondako ikusgai egongo dela. Hirigintza Sailaren erantzunaren zain dago orain.

## Zaldibarko txapelketa hasiko da asteburuan

J.B. | ARRASATE

Bihar hasiko da Zaldibarko futbito txapelketaren 50. edizioa. Azken orduan Iluna taldea ere sartu da txapelketan eta beraz, aurrean 15 taldek hartuko dute parte, iaz baino talde bat gehiago. Txapelketak hiru fase izango ditu: liga erregularra, bi taldetan banatutako bigarren fasea -lehen zazpi sailkatuak eta azken zortziak- eta final laurdenekin hasiko den azken fasea. Bestalde, kopa ere jokatuko da, bi aste bukaeretan. Zazpi jardunaldi jokatuko dira jarraian, abenduaren 17 eta 18ko asteburura arte.

### PARTIDUAK

AZAROAK 5, ZAPATUA

10:30 Dublin - Portaboleiros 2.0 / Fidel.

11:30 Lasagabaster - Fidel & Disc. / Porta.

12:30 Mcawen-Dribling / Lasagabaster

16:00 Aldatz-Aston Birra / Iluntz

17:00 Iluntz-Sonografos / Aldatz

AZAROAK 6, DOMEKA

11:30 Abokajarro-At. Betrayer / Iriztu

12:30 Ekaitz-Iriztu / At. Betrayer

Atsedena: Iluna

## Asteburuan izango dira Gurasolandiako ekintza aipagarrienak

Asteburuan izango dira Gurasolandiako ekintza aipagarrienak. Gaur, Itsaso Pagoaga jolasetan adituarekin *Gurasoak ere jostari* ekintza egongo da Kulturateko Jokin Zaitegi gelan (18:00). Bihar, jostailu erakusketa egongo da Jokin Zaitegi gelan (10:00-13:00) eta Garikoitz Lopez de Munain fisioterapeutaren eskutik haur masajea egongo da Loramendi gelan, 11:00etatik aurrera. Amaizteko, domekan, jaialdia egingo dute Biteri plazan, 11:00etatik aurrera; adi azken ordukoei, eguraldi txarra egiten badu bertan behera geratuko da-eta.

## NIRE USTEZ

ENEKO BARBERENA



Albistearen zeren albiste ote?

Arrasateko lagun bateria jole batek eskatu zidan Taupa pareko marrazoaz hitz egiteko. Marrazoa deitzen diogu bertan, Aramaio erreka agerian den tarte horretan, bizi den amorrain bakarti eta heroikoari. Baina zalantza dut, eta handia gainera, ea gure arteko broma hori nahikoa gai den zutabe bat idazteko. Beste era batera esateko, intereskoa den eta balekoa den iritzia hedabide batean agertzeko.

Esan beharra daukat gaur egungo kazetaritzak ez diola erantzunik ematen dudana dudari, uste baitut gero eta lausoagoa dela kazetaritzan ondorengo muga: norberaren edo norberaren inguru hurbilean garrantzitsua dena eta jendartearentzat garrantzitsua dena. Bi adibide. Bata, Steve Jobsen heriotzak nire ustez izan duen tratamendu gehiegizkoa. Apple etxeari meritorik kendu gabe, uste dut etxe horren eragina askoz handiagoa dela proportzioan kazetarien gremioan jendartearen artean baino. Eta uste dut kazetariak ebatzi dutela euren ezinbestekoak diren *mac*-ak herritarrentzat ere hala izan behar dutela, ezinbestekoak. Horregatik gehiegizko trataera. Bigarrena, Sustatu agerkarian *Katutxoak hiltzea zer den interneten* albiste. Tuiteroen arteko broma bat albiste egina, beste albisten garrantziaren pare.

Zer den albiste eta zer ez, ez da erraza erabakitzen. Argi baino ilunago dut gaia. Baina marrazok behintzat izan du bere espazioa prentsan.

**"Zer den albiste eta zer ez, ez da erraza erabakitzen"**

www.citroen.es

**CITROËN C4 BERRIA**  
POSITIVE POWER

REMOVE PLANA + CITROËN HIL HONETAN, ESKURA ITZAZU **3.000€** ZURE AUTO ZAHARRAREN TRUKE.\*

Jarrai gaitzazu:   

Errepidea plazeraren sinonimo bihurtu da, teknologia dosi on bat bakarrik behar da. Emozioetatik urrun geratzen dena, baina, misterioz, gidatzeko garaian, sentsazio goxoak biziarazten dituena. Lasaitasuna, segurtasuna eta gozamenak dira teknologia mikro-hibridoa duten e-HDI motorrek eskaintzen dituzten estimuluen erantzunak (ekipamendu osoarekin eta kanpo eta barne diseinuarekin). Bizi itzazu erreakzio horiek Citroën C4 berriaren eta konproba ezazu ezustekoak atseginak izaten direla beti.

### Equipamiento para las emociones:

CITROËN eTOUCH (LARRIALDI DEI AUTOMATIKOA GPS LOKALIZAZIOAREKIN), ESP TRAKZIO- KONTROL AZKARRAREKIN, NAHI GABEKO KARRIL ALDAKETARAKO ALERTA SISTEMA, ERREPIDE ALDAPATSUAN ABIARAZTEKO LAGUNTZA, APARKATZEAN ALBOKO ESPAZIOAREN NEURGAILUA, CORNERING LIGHT, AURREALDEKO ESERLEKUAK ERREGULAZIO ELEKTRIKOAREKIN ETA MASAJE FUNTZIOAREKIN, 230 V-KO HARGUNEA, ABIADURA MUGATZAILERREGULATZAILERPROGRAMAGARRIA, ANGELU HILAREN ZAINTEZ SISTEMA, BI-XENON FARO AUTODIREKZIONAL, GUTXI PUZTUTAKO PNEUMATIKOAK ANTZEMATEKO SISTEMA, TEKNOLOGIA MIKRO-HIBRIDOA ETA MARTXA ALDAGAILU MANUALA DUTEN e-HDI-dun MOTORRAK.



KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / IGORPENA CO2 (G/KM): C4 BERRIA: 4,0-6,9/104-159.

\*Deskontua Citroën C4ren salneurriarekiko (azaroan gomendatua), zergak barne, Banque PSA Financeren bidez gutxieneko 6.000 euroko kapitala eta 36 hilabeteko finantzaketa egiten duen bezero partikularrendako, trukean beste auto bat utzita; hilabetea amaitu arte, eskaintza dagoen salmenta-puntuetan. Eskaintza ez da bateragarria. Baldintzak www.citroen.es webgunean kontsultatu. Ikusten den modeloa: Citroën C4 Exclusive.

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*

**Gubi**

ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 12 74





## OHARRAK

ARGAZKILARITZA  
IKASTAROA

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa azaroaren 7tik 30era, astelehen, martitzen eta eguaztenetan, 19:15etik 21:15era, Zabalotegin, Pol-Pol argazki taldearen egoitzan. Argibideak 943 77 91 59 zenbakian.

ASTRONOMIA BEHAKETA,  
ATZERATUTA

Jardunek eta Ilatargi Astronomia Taldeak azaroaren 5erako deituta zuten behaketa bertan behera geratu da.

## AMAIURREN EKITALDIA

Biharko, zapatua, Zubien Martxa deitu du Amaiurrek, 12:30ean, San Martin plazatik abiatuta. Herritarrei parte hartzeko dei egin diete.

## 1943KOEN BAZKARIA

1943an jaiotako bazkaria azaroaren 12an Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea: 943 76 16 13 (Arantxa) edo 943 76 53 22 (Tejidos Fernandez).

## 1946KOEN BAZKARIA

1946an jaiotako bazkaria azaroaren 12an Tartufon. Izen-ematea bertan: 943 76 35 51.

## 1930EKOEN BAZKARIA

1930ean jaiotako bazkaria azaroaren 12an Zumelagan. Aurretik, 14:00etan, Olibotan elkartuko dira argazkia ateratzeko. Izen-ematea: 943 76 22 22 edo 943 76 26 23.

## 1947AN JAIOTAKOAK

1947koen afaria azaroaren 12an Agorrosin. Euskadiko Kutxako 0091140069 kontuan 45 euro sartu behar dira.

## 1933KOEN BAZKARIA

1933an jaiotako bazkaria azaroaren 13an Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea (6 euro) Intxortan edo Azpeitxin.

## 1934AN JAIOTAKOAK

1934koen bazkaria azaroaren 19an Errekin. Frontoian batu-kokoa, 14:00etan. Izen-ematea (12 euro) Errekin.

## 1948KOEN AFARIA

1948an jaiotako afaria azaroaren 19an Zabalan. Frontotik autobusa aterako da 21:00etan. Izen-ematea (55 euro) Euskadiko Kutxan.

## 1991KOEN AFARIA

1991koen afaria azaroaren 19an Tartufon. Izen-ematea Euskadiko Kutxan.

## 1953AN JAIOTAKOAK

1953koen afaria eta dantzaldia azaroaren 19an Txarrantxa jate-txean. Izen-ematea (15 euro) Txarrantxan edo ONCEko kioskoan (Tasio).

## 1945EKOEN AFARIA

1945eko afaria azaroaren 26an Azpeitxi jate-txean. Izen-ematea Azpeitxin bertan, 25 euro aurreratuta.

# Ekintzaileendako lokalak Oxirondoko azokan

## Mankomunitateko Garapen Agentziak eta Udalak zerbitzutarako lau lokal jarriko dituzte eskuragarri

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak sinatutako hitzarmenari esker, zerbitzutarako lau lokal zuzenduko dituzte Oxirondo azokan. Mankomunitateko Garapen Agentziak ekintzaileendako 16 lokal ditu Arrasaten eta Bergaran beste lau izango dira aurrerantzean. Betiere, jarduera berriak jasoko dituzte lokalek, baldintzen arabera jardueraren gehienezko antzinatasuna 6 hilabete delako. Edozein jarduera martxan jartzeko kokapena izaten da arazo nagusietako bat eta horri irtenbidea ematea da helburua; lokalak oso baldintza interesgarritan alokatzeko aukera dagoela azpimarratu dute Mankomunitateko iturriek. Gehienez, 3 urterako uzten dituzte lokalak; lehen urtean metro karratu bakoitzeko euro bat kobratzen dute eta beste bi urteetan garestitzen doa prezioa, merkatuko baldintzetara iritsi arte.

Mankomunitateko Garapen Agentziako Koldo Azkoitia zera dio: "Ekintzaileei laguntzea da gure asmoa eta horretarako ahalik eta baldintza onenak eskaintzen dizkiegu. 1995 urte aldera hasi ginen zerbitzu hau eskaintzen eta enpresa mordoak igaro da gure lokaletatik. 16 lokal ditugu Arrasaten gaur".



Ekintzaileei zuzendutako lokalak azokako bigarren solairuan daude. | E.M.

## Azokari bizitasuna

Ekintzaileei zuzendutako lokalak, esan bezala, Oxirondoko azokan daude, bigarren solairuan. Gaur egun Pol-Pol mendizale elkarteak lokala dauka han. Bide batez, Oxirondoko azokari bizitasun handia-

goa ematea da Udalaren asmoa, lokal mordoak hutsik daudelako. Orain dela 17 urte zabaldu zuten Oxirondoko azoka, 1994ko iraillean.

Azokako lokalak ibarreko edozeinek eskuratu ahal izango ditu. Dagokion jardueraren bideragarritasun plana aztertu ondoren, Garapen Agentziako batzordeak egingo du ebaluazioa.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Udaleko Enplegu Zerbitzura (943 77 91 24) edo Debagoieneko Mankomunitatera (943 79 33 99) jo daiteke. Enpresa Ekintzetarako zentroa Arrasaten dago, Nafarroa etorbideko 19. zenbakian. E-maila hauxe da: [garapen-agentzia@debagoiena.net](mailto:garapen-agentzia@debagoiena.net).

## ESANAK

"Erraztasunak eman nahi dizkiegu ekintzaileei"

KOLDO AZKOITIA | MANKOMUNITATEA



## SAN LORENTZO AUZOA BERGARA

Logela bateko etxebizitza

**139.000** €-tik aurrera  
23.127.654 pta

Bi logelako etxebizitza

**168.000** €-tik aurrera  
27.952.848 pta

Hiru logelako etxebizitza

**216.000** €-tik aurrera  
35.939.376 pta

3. FASEA

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen  
~~BEZ-a %8~~

Orain  
Etxebizitza berrian  
BEZ-a %4

Etxebizitza  
bukaera  
**2012**

Eraikitzailea

INGESLAN  
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibidea  
eta Salmenta

**943 424 430**

[www.ormak.es](http://www.ormak.es)



Mendiko kalea herrigune historikoaren perimetroan sartuko du Eusko Jaurlaritzak. | MIREIA BIKUÑA

# Mendiko kalea herrigune historikoan sartuko du Eusko Jaurlaritzak

Behin betiko dekretua 2012ko apiril edo maiatzerako egingo dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko herrigune historikoa monumentu-multzo kategoriako kultura ondasun izendatzeko espedienteari Udalak eta hainbat herritarrek egindako alegazioen erantzunak jaso berri dituzte. Udalak hiru puntuko alegazioa aurkeztu zuen eta banaka-banaka aztertu dituzte Jaurlaritzan.

Lehen puntua herrigune historikoaren mugaketari dagokiona da. Eusko Jaurlaritzak 1990ko hamarkada ezker indarrean dagoen perimetroa zabaltzea proposatu zuen: Bidaurreta herrigune historikoan sartzeko, Mendiko kalea, Euskadi etorbidea,

Apaolaza, Etxaluze eta Lazarraga kaleak sartzeko proposatu zuen. Udalak mugaketa horren kontra alegazioa aurkeztu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak onartu egin du salbuespen batekin: Mendiko kale herrigune historikoaren barruan sartuko dute. "Etxe gehienak berriak dira, baina esan digute mende askoko kalea dela, eta dituen ortuek halako aipamena merezi dutela", esan digu Hirigintza eta Zerbitzuak batzordeko buru Josu Lizarralde.

Bestalde, Jaurlaritzaren perimetroan Triana inguruko kaleak eta Ultzegein kalean dauden hiru etxe sartu zituzten. Udalaren

alegazioaren ondoren, guztiak kanpoan geldituko dira. "Oñati ibaia hartu dute erreferentzia moduan. Ibaitek herrigunera dauden kale guztiak perimetroan sartu dituzte eta gainerako kaleak, Bidebarrieta, Erremetari, Ultzegein eta Motxon, besteak beste, kanpoan geratu dira".

## Babes bereziko eraikinak

Udalak aurkeztutako alegazioaren bigarren puntuak babes mailari egiten zion erreferentzia. Alegia, herriguneari dauden etxebizitzek izan beharreko babes mailari dagokiona. Udalak eskatu zuen perimetroaren barruan

## ESANAK

**"Salbuespenekin onartu dute egun daukagun perimetroa"**

JOSU LIZARRALDE | ZINEGOTZIA

dauden eraikin guztiek orain arteko babes mailari eustea. Hori horrela, eskatu zuten Baruena, Galartza, Leturia eta Onako etxeek erdi mailako babesarekin jarraitzea. Jaurlaritzak esan du berriro aztertuko dituela, baina etxe horiek "seguruenik" babes berezia izango dutela. "Etxe horietako jabeek alegazioak aurkeztu zituzten. Oñatin babes maila berezia dute parrokiak, unibertsitateak eta udaletxeak. Babes maila berezia izateak esan gura du etxe horien barneko antolaketa ezin dela aldatu. Ez dute behin betiko erabakirik hartu, baina ez dugu uste babes maila mantentzea onartuko dutenik", esan digute udal ardura-dunek.

Udalaren alegazioaren hirugarren puntuan "antzemandako akats teknikoak" laburbildu zituzten; besteak beste, Jaurlaritzak bitan banatu zuen Txantxiku Ikastola babes mailari dagokionez. "Akats gehienak onartu egin dituzte", esan digute.

## 2012ko apiril edo maiatzerako

Jaurlaritzak abuztuaren 8an argitaratu zuen herrigune historikoa kultura ondasun izendatzearen inguruko ebazpena. Alegazioak aurkezteko epea irailaren 1era luzatu zuten. Udalaz gain, hainbat herritarrek euren alegazioak aurkeztu zituzten.

Horiek guztiak aztertu dituzte, eta erabaki batzuk hartu ostean, behin betiko dekretua egitea falta da. "Puntu batzuk zehazteko dituzte, baina eurekin egindako azken bileran esan ziguten, behin betiko dekretua 2012ko apirilerako edo maiatzerako egingo dutela", dio Lizarralde.

## BETERANUAK

### EMAITZAK "B" TALDEA

Zorrobero-Joxely	0-3
Indar 85-Sasquatch	1-1
Ankarteko-Bundeswehr	0-3

### SAILKAPENA "A" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Txarrikak	3	1
2 Kalañatasaray	3	1
3 Albok	3	1
4 Doolygans	1	1
5 Etxaizat	1	1
6 Paketinaikos	0	1
7 Nandrolona	0	1
8 Lozoromo	0	1

### SAILKAPENA "B" TALDEA

TALDEA	P	J
1 Joxely	3	1
2 Bundeswehr	3	1
3 Indar 85	1	1
4 Sasquatch	1	1
5 Zorrobero	0	1
6 Ankarteko	0	1
7 The Gibel Boys	-	-
8 Xaguxar	-	-

### PARTIDUAK "A" TALDEA

2. JARDUNALDIA	
Zapatua 13:00 Nandrolona-Etxaizat	
Domeka 13:30 Txarrikak-Albok	

## Azken orduko ordu aldaketa biharko

Bihar Nandrolonak eta Etxaizatek jokatu duten partiduen ordutegia aldatu egin dute. Batzordeak herriko hainbat lekutan ipini dituen karteletan 20:30ean dela ipintzen du, baina 13:00etan izango da.

Bestalde, aste bukaeran A taldeko bi partiduko bakarrik jokatuko dituzte. Multzo horretako gainerako partiduko eta B taldeko 2. jardunaldikoak azaroaren 12-13ko aste bukaeran jokatuko dituzte.

## OHARRAK

### DEIALDIA

1967ko kintoek afaria egingo dute azaroaren 12an Sorraluze hotelean. 19:00etan elkartuko dira plazan eta poteoa egin ondoren afaltzera joango dira elkarrekin. Interesatuak azaroaren 11 baino lehen eman behar dute izena. 35 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0005 35 0051045540 zenbakian.

### IKASTAROA

Gurutze Gorriak lehen laguntzaren gaineko ikastaroa egingo du azaroaren 7tik eta 29ra, astelehenetik egubakoitzera. 619 00 35 00 telefonoan eman daiteke izena, edo mezua bidalita [altodeba@cruzroja.es](mailto:altodeba@cruzroja.es) helbidera.

## Atzo egin zuten Inazio Garayren aldeko hileta elizkizuna

Eguaztenean hil zen 73 urte zituela Hijos de Juan de Garay enpresako presidente eta Londres Hoteleko bazkide Inazio Garay. Hileta elizkizuna atzo arratsaldean egin zuten Oñatiko parrokiak.

Hijos de Juan de Garay enpresa 1864. urtean sortu zuen Cornelio Garayk. Aretxabaletarra jaiotzez, pospoloak egiteko enpresa sortu zuen Oñatin. 1921etik 1994ra aterkiak egin zituzten.

Egun, motelgailuendako hodiak, airbagak, autoen direkziozako gailuak eta letoitik deribatutako aleazioak egiten dituzte. Hijos de Juan de Garay enpresak 400 langile ditu eta urtean 100 milioi euro fakturatzen ditu.

## Film laburren rallyan izena emateko: 'www.olrallya.com'

Oñatiko film laburren II. rallya egingo dute bihar, zapatua, Irudiz enpresak antolatuta; [www.olrallya.com](http://www.olrallya.com) helbidean izena ematen duten lehen 20 lanak onartuko dituzte.

Bihar, 09:30ean egingo dute aurkezpena eta gaiaren banaketa. Antolakuntzak herriko hamar toki emango ditu, eta horietatik hiru agertuko behar dira lanean. Hiru minutuko iraupena izango du eta 19:00etarako entregatu behar da lana gaztelekuan.

Iaz zazpi talde lehiatu ziren, bost oñatiar. Bilboko Espinaka Films taldeak irabazi zuen, Txantxikuwood eta Urtzi taldeen aurretik.

## 195 lagunek hasi dituzte eskulan ikastaroak asteen

Kultura batzordeak antolatzen dituen eskulan ikastaroak asteen hasi dituzte. 195 lagunek parte hartuko dute apirilera arte. Asteen hasi dituzte zeramika, hari eta puntulanak eta gazteendako pintura ikastaroak.

Bestalde, nagusiendako pintura eta hari eta puntulaneko bigarren taldea azaroaren 7an hasiko dira; pintura dekoratiboa azaroaren 8an; eta bitxigintza 11n. Ikastaro guztiak Bidebarrietako lokalean emango dituzte. Gehienak 40 ordukoak dira, bitxigintzako izan ezik. Azken hori 14 ordukoa da eta bi emango dituzte.

## Amaiur koalizioarendako posta bidezko botoa

Amaiur koalizioak azaroaren 20ko hauteskundeetarako posta bidezko botoa eman ahal izateko egunak zehaztu ditu: gaur, azaroak 4, eta hilaren 8an eta 10ean bete ahal izango dira inprimakiak kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara. Gainerako egunetan inprimakiak Arrano tabernan jaso ahal izango dira.

Posta bidezko botoa eman gura dutenek informazioa jaso ahal dute egun horietan kultura etxean, eta beharrezkoa den dokumentazioa bete beharko dute. Tramitazio guztiak eginda, euren botoa posta bidez bidaliko dute azaroaren 20rako.

# Ziurtatu dute urtarrilean zehar zabalik izango dela kiroldegi berria

Galdiano enpresako langileak geratu barik dabilta azken hilabeteotan; aurreikuspenen artean dauka abenduaren 15erako bukatuta izatea obra

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Markole auzoan dagoen eraikinak badu kiroldegi itxura; itxura dotorea, gainera, kobrezko plakek ematen dioten kolore gorrixkarrekin. Eraikinaren hezurdura eginda dago eta langileak geratu barik dabilta: leihoetako kristalak jarri; lurzorua egiteko materiala bota; solariuma egokitu...

Galdiano enpresak dio abenduaren 15erako lanak bukatuta izango dituztela eta udal ordezkariak ziurtatu dute urtarrilean zabalik egoteko "ahalegin guztia" egingo dutela: "Obrek sei bat hilabeteko atzerapena dute, baina lanik handienak eginda daude eta herritarrak lasai egon daitezke urtarrilean zabalik izango delako", esan du Ana Bolinaga alkateak.

## Rokodromoa eta igerilekua

Eguaztenean komunikabideendako bisita gidatua egin zuten udal agintari eta teknikariek eta LKSk eta obrako ordezkariak. Behetik gora erakutsi eta zerbitzu guztien berri eman zuten. Sarrera nagusia lehenengo solairuan izango du eta bertatik joko dute kantxa eta harmailletara -300 lagunendako lekua jarleku mugikorrekina; baita rokodromora ere -50 metro luze, 4 metro pasa altuera-. Hil honetan bertan hasiko dira hori muntatzen.

Hirugarren solairuan bainurako gunea dago: hiru igerileku -handiena 25 metro luze, zazpi kale- eta spa gunea: jakuzia, ur txorroak, sauna... Kanpoan eguzkia hartzeko lekua ere egokitu dute Kurtzebarri mendiari begira.

Gainera, hainbat areto daude kirol jarduerara ezberdinetarako eta solairu bakoitzean aldagelak ere bai: "Areto eta gela handiak dira; horrek aukera emango digu behar denean banatu eta gela txikiagoak egiteko", argitu du alkateak. Tabernarik ez du izango kiroldegiak. Bestalde, haurtzaindegi zerbitzua jartzeko aukera izango da.



Udal agintari eta teknikariak eta LKS eta obrako ordezkariak kiroldegi berrira sartzeko gertu. | M.A.

## Diru kostuak gora

Bukatzerakoan kiroldegiak hainbat gorabehera izan ditu. Gorabehera horiek izan dira atzerapenaren arrazoi, baita diru kostuak gora egitearen arrazoi ere. 2009an esleitu zitzaizkion lanok Galdiano SA enpresari eta hasierako aurrekontua 11.895.470 euro izan arren, azkenean ia bi milioi gehiagoko kostua izan dute. Horren arrazoiak izan da zimendatze arazoak -mikropilote bidezko zimendatze sakona egin beharra-; trinketa baztertu beharra -pilotalekuko horma ez zegoelako harrian zimendatuta-; eraikinaren eraisketa lan gehi-

go egitea -aurreko eraikineko zimenduak agertu zirelako-; eta sotoan aldaketak egin beharra. Kontuak kontu, 13.699.370 euroko kostua izango dute lanek, eta horri gehituko diote ekipamendurako aurrekusi dutena, 726.000 euro.

## Abonatzeko eskaera

Atzerapenak atzerapen herritarrei lasai abonatzeko esan diete Udala ordezkariak kiroldegi urtarrilean zabalduko delako: "Inguruko kiroldegiekin negoziatzen gabilta orain, gurea zabaldu bitartean hara joan daitezke Aretxabaleako abonatuak", dio alkateak.

Abonatzeko kanpaina abenduan egingo dute.

Oraindik hainbat erabaki dituzte hartzeko Udala ordezkariak. Batetik, kudeaketaren gainekoa, hau da, guztia utzi enpresa baten eskuetan edo mistoa izan. "Biak ditugu mahai gainean, baina ez dugu diru zulo handiagoko gitea gura". Eta bestetik kuoten gainekoa: "Kirola egitea ez dadila luxua izan, baina urtero 900.000 euro ordaindu behar ditugu", argitu du Bolinagak. Egunotan erabakiko dituzte biak.



**DATUA**  
**13.699.370**  
EURO

Eraikinaren kostua da hori; hasierako aurrekontuak 1.800.000 euroko igoera izan du. Ekipamendurako 726.000 euro bideratu dute.

**Kiroldegiaren inguruko jarduerak**

Izena hautatzeko lehiaketa: azaroaren 3tik 11ra (Arkupen eta udaletxean).  
Saria: M5 kirol-dendarako 50 euroko bonua.  
Hitzaldia: azaroaren 8an, martitzena (19:00), Arkupen.  
Kiroldegiaren aurkezpena herritarrendako alkatearen eskutik.  
Boteprontoa: azaroaren 12an, zapatua (11:00-13:00), Arkupen.  
Herritarren iritzi eta ekarpenak partekatze saioa.

## Maitasunezko SMS lehiaketa abian da gazteendako

M.A. | ARETXABALETA

Udaleko Euskara eta Gazteria sailek gazteei zuzendutako SMS mezu lehiaketa jarri zuten abian atzo, eta hilaren 17an bukatuko da. 12 eta 18 urte arteko edozeinek har dezake parte eta maitasunezko mezu bat bidali beharko dute telefono mugikorrekina: MAITASUNA (tartea) maitasun mezua, 215800 zenbakira -SMS bakoitzaren kostua: 0,15 euro + BEZa-. Euskaraz izango da mezua eta gehenez 140 karaktere izango ditu.

Epaimahaiak mezuaren jatorrasuna, originaltasuna eta berritzailetasuna baloratuko ditu, eta irabazleak HTC Wildfire poltsikoko telefonoa jasoko du. Argibide gehiago [www.arkupe.eu](http://www.arkupe.eu) webgunean.

## Brikolaje eta etxeko jardunen gaineko ikastaroa egingo dute

Berdintasun Zerbitzuak bi ikastaro antolatu ditu bi hilabeteotan egiteko: brikolajea (iturgintza, elektrizitatea...) eta etxea eramaten ikasteko formazioa (sukaldaritza, garbiketa, diru kontuak...). Izena emateko Arkupera jo (debalde da); azken eguna, astelehena.

## OHARRAK

### 'URTE BERRI ON, AMONA!' FILMA ASTE BUKAERAN

Zinema itzuliko da Arkupera Telmo Esnalen *Urte berri on, amona!* filmarekin: gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00).

Umek *Cars 2* izango dute bihar eta etzi (17:00).

### MURRUKIXOREN DEIA

Murrukixo MEk jakinarazi du federatze kontuetan aldatetako egiteko epea zabalik dagoela hilaren 23a arte. Martitzenetan (19:00-20:00) egoitzan (943 79 93 74) edo [murrukixo@euskalerrria.org](mailto:murrukixo@euskalerrria.org) helbidean.

### GURASOENDAKO DEIA

Haurren hazkuntzaren gaineko zalantzak eta gogoetak trukatzeko guraso elkartera sortu gura dute; lehen bilera azaroaren 13an izango da.

Bestalde, haurrendako dantza ikastaroa egingo dute Zainduz-en (10:30-12:30): azaroak 12, abenduak 10 eta urtarriak 14. Izena emateko azken eguna astelehena da. Argibideak: 650 93 96 93 (goizez) edo [alkurrena@gmail.com](mailto:alkurrena@gmail.com).

**zenbaki**  
aholkulariak-abokatuak

25  
urteurrena

100% CERT  
ISO 9001

GARANTIA DE ALQUILER

#### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administrazioa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

- **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
- **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
- **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12  
[www.zenbaki.es](http://www.zenbaki.es)

**Mobiliario**  
**ARENZA**

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**NIRE USTEZ****JUAN LUIS ZUBIZARRETA**

Ogi gogorrari,  
Aitz... zorrotz...

Joder, txoko hau estreñtako ordua iritsi jat, lagun Piña-ri errebua hartuta. Nunbaitetik hasi biher eta izenburutik hasiko naz. Xarma taldeek egubakoitzien, euren CD barriko azalien idatzi zuztiena. Gurien izen zien *Karenka* azken lana aurkezten, eta eurak eta baita inguratu ginen guztiok be oso ondo pasa geben. Eskerrik asko! Hau izen da udaren ondoren antolatu douen lehen ekimena. Martxan jarri gare!

Eta Xarmakuek idatzitakua gogora ekarrita, Euskal Herri-ara garai barrixak etorri dien arren, susmua dauket ondion eraso gogorre aurre ein biherko dotzegula, eta horretarako aitzoak zorrotzuta euki biherko ditugu. Bestiak beste, datorren urterako eskuartien daukouen ekimen garrantzitsua *Nafarroa Bizirik 1512-2012* ekimena babestia, zabaltzia eta bultzatza izengo da. Zapatuan aurkeztu zuten ekimena, eta laguntza eskatu daue, garbi geratu dain orain 500 urte pasatu zana indarrez burututako konkista izan zala, eta ez Gaztelako erresumara biltzeko hitzarmena. Aldarrikapena Euskal Herri guztira zabaltzia da asmua, historia egixa oinarri hartuta idatzi dain, eta ez garailiek erabilitako manipulaziñuari jarraituz.

Eta hala, Nafarroako Erre- sumaren gotorleku izan ginen honetatik (Atxorrotzetik), gure aztoak be horretan erabiliko ditugu, eskainiko duzkuen ogi gogorra moztu eta horrekin berakatz zopa eder bat eiteko, garai barri hontan gustora das- tatu daigun. Hala bedi!

**"Susmua dauket eraso gogorre aurre ein biherko dotzegula"**

# Martxan da San Pedro berritzeko lehen faseko lanen prozesua

Hemendik aurrera eguenetan egingo dituzte osoko bilkurak

**MIRIAN BITERI | ESKORIATZA**

Udalbatzak egindako azken osoko bilkuran, San Pedro auzoko 1. zenbakitik 9ra arteko proiektuan aurreikusitako obrak esleitzeko baldintzen agiria onartu zuen aho batez. Horretarako aurrekontua 299.932,48 euro da, eta obrak egiteko epea bost hilabete izango da. Esleipena egiteko prozesuan, besteak beste, herrian lana sustatzea baloratzea adostu zuten udal ordezkariak; horren harira, kontratatutako eskoriatzar bakoitzeko hiru puntu emango dituzte, eta gehienez hamar puntu jaso ahal izango dira.

Batzar berean, ohiko osoko bilkurak egiteko eguna aldatzea onartu zuten udalbatzako kideek aho batez. Orain arte eguaztente- tan egin badira ere, hemendik aurrera eguenetan izatea erabaki zuten. Ordua ez da aldatuko; 18:30ean hasiko dira.

**Deskargako tunela lehenestu**

Bestalde, EAJk proposatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Beasain eta Bergara arteko autobidearen obrak gelditzeko hartu-



San Pedro auzoko 1. eta 9. zenbaki arteko eremua berrituko dute. | MIRIAN BITERI

tako erabakiaren gainean ere jardun zuten bilkura hartan. Aitor Urrutia jeltzaleak gogorarazi zuten egunero errepide horretan dabilzan debagoiendarrendako atzerapen "onartezina" ekarriko duela eta, hortaz, Eskoriatzako udal bilkurari proposatu zion

Diputazioari eska diezaiola dagoeneko Urretxun hasita dauden obrak ez geratzeko eta, bereziki, Deskargako tunelaren zatia, Urretxu eta Antzuola artean dagoena, lehenesteko. Esandako mozioak PSE eta Bilduko ordezkarien aldeko botoa jaso zuen; Elizate-

koen abstentzioa; eta EB-Berdeak taldeko zinegotziaren kontrako botua.

Beñat Herce alkateak (Bildu) onartu zuen proiektu horrek Diputazioaren "zorpetzea" dakarrela. Horren harira, baina, gaineratu zuen bailarendako proiektu "garrantzitsua" dela eta, hortaz, alde bozkatuko zutela. Ildo bere- tik, PSEko zinegotzi Jose Luis Morcillok aipatu zuen obra hori "beharrezkoa" dela. EB-Berdeak alderdiko Juan Luis Merinok, ostera, gogorazi zuen Bidegin 900 milioiko zorpetzea eragingo duela horrek eta ingurumenean ere kalteak egingo dituela.

**%50eko igoera etxe hutsek**

Horretaz gainera, EB-Berdeak taldeak aurkeztutako ondasun higiezin zergari buruzko mozioa ere onartu zuten. Horren bidez, hutsik dauden etxebizitzetzi, 2012-ko ekitaldian, ondasun higiezin gaineke zergan %50eko errekar- gua aplikatu ahal izateko beharrezko araudia berehala onartze- ko eskatu zion udalbatzak Gipuz- koako Diputazioari.

## Udalak erretiratuen taberna bi hilabetez eroateko eskoriatzarra behar du

**M.B. | ESKORIATZA**

Herriko erretiratuen taberna itxita dago joan den martitzena ezkerro, areto hori kudeatzeaz arduratzen zen Txukunberri enpresaren eta Udalaren arteko hitzarmena apurtu ostean. Itxie- ra hori ahalik eta laburrena izate- a gura du Udalak, eta Gizarte Zerbitzuetako Sailean lanean dihardute egunotan albi batera-

ko (azarorako eta abendurako) langile bat kontratatzeke. Intere- sa dutenek 943 71 31 36 telefono zenbakira deitu behar dute, eta Gizarte Zerbitzuetako langile Beronika Solagurenengatik gal- detu.

Bitartean, urtarriletik aurre- ra esandako taberna ustiatzeko lehiaketa deitu du dagoeneko Udalak.

**OHARRAK****KIROL HITZORDUAK**

Hiru partidu daude bihar kirolde- gian: 10:30ean, saskibaloian, kade-

teena Arizmendi eta Zast Zarautz artean; 16:00etan, kirol bereko gazte mailan, Eskoriatza eta Alle- rru artekoa; eta 18:00etan, areto futboleko Euskal Ligan, etxeokak eta Eskolapioak lehiatuko dira.

**FILM LABURREN LEHIAKETA**

Azaroaren 19an izango da Esko- riatzan *Ti Tau II*. film laburren rallya, Eingeinke mugimenduak antolatuta. Interesatuak [eingeinke.org](http://eingeinke.org) webgunean eman behar dute izena.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

Dagoeneko bozka daitezke *Esko- riatzako txokoak I*. argazki lehia- ketara aurkeztutako argazkiak, hilaren 20ra arte. Irudi guztiak [www.eskoriatza.net](http://www.eskoriatza.net) webgunean daude ikusgai.

## Bigarren eskuko azoka eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots azaroan

**M.B. | ESKORIATZA**

Azaroko kultura egitaraua ekin- tzaz josita dator bigarren hama- bostaldian. Ohiko kirol hitzordu eta ludoteka eta gaztelekuko ekintzez gain, hilaren 14an, *Gutxiago gastatu, gutxiago ero- si gabe* izeneko tailerra egingo dute Ibarraundi museoan, 18:30ean. Debalde eta euskaraz izango den hitzaldian izena emateko 943 71 54 53 telefono zenbakira deitu edo [ibarraundi@eskoriatza.net](mailto:ibarraundi@eskoriatza.net) helbidera idatzi behar da.

Hilaren 20an, ostera, biga- rren eskuko azoka egingo dute. Aurtengo maiatzaren 22an egin zuten lehen aldiz horrelako azoka bat, eta, izandako harre- ra ona ikusirik, ostera ere anto- latzea erabaki dute Udaletik.

**Ardoari buruzko ikastaroa**

Bestalde, azaroaren 23an ardo dastatzea egingo dute, bigarre- nez. Euskaraz izango den has- tapen ikastaroan parte hartu gura dutenek 943 71 46 88 (Kul- tura etxean) telefono zenbakian eman behar dute izena. Ohikoa den moduan, hurrengo egunean, hilak 24, umeendako ipuin kon- taketa izango da liburutegian, 18:00etan; eta azaroaren 25ean, egubakoitza, antzerkia, uniber- tsitatean.

**'Zazpikoloroa' ikuskizuna**

Bestalde, azaroaren 26an ez da aspertzeko astirik izango herrian. Lehenengoa umei zuzenduta dagoen urteroko ekintza berezia da: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunek *Zazpikoloroa* izeneko ikuskizun berria aurkeztuko dute herriko kiroldegian, 17:30ean. Hori amaitzean, azken urteotako ohiturari jarraituz, Eskoriatzako VI. ardo dastatzea egingo dute Herriko Plazan. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako ekintza 19:00etan hasiko da.

Musika gustuko dutenek, berriz, urteroko kontzertua izango dute: hain justu ere, Santa Zezilia egunaren harira herriko bandak parrokiaren eskai- niko duen emanaldia. Meza amaitzean hasiko da kontzertua. Horretaz gainera, Apotzagako San Migel merenderoan bertso afaria egingo dute, 21:00etan. Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariak gon- bidatu dituzte horretan.

Azaroari amaiera borobila emateko, hilaren 27an, domeka, uretako parkea egingo dute kiroldegiko igerilekuan. Adi- naren arabera hiru txanda izango dira 16:00etatik 20:00e- tara bitartean.



**REHABILITACIONES IKERRA S.L.**

**ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK**

Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA  
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071  
E-posta.: [re-ikerra@hotmail.com](mailto:re-ikerra@hotmail.com)

# Orokorrean %2,8ko igoera izango dute 2012rako ordenantza fiskalek

Andoni Larrañagak irabazi du armarien ideia lehiaketa

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Joan den eguaztenean egindako udalbatzarraren ohiko osoko bilkuran onartu zituzten 2012rako ordenantza fiskalak. Bilduko sei zinegotzik aldeko botoa eman zuten, EAJko bi abstenitu egin ziren eta PSE-EEko zinegotzia ez zen bilkuran izan. Orokorrean %2,8ko igoera izango dute zerga eta tasa gehienek. Igoera hori aplikatuko zaie ondorengoei: traxio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga; zabor bilketa eta errausketa zerbitzuaren tasa; hirigintza baimenak emateko zerbitzuaren tasa; hesiak, aldarmioak jartzeko tasa; ibilgailuak

espaloietan aparkatzeko tasa; eta lurzoru publikoa okupatzeko tasa. Badira igoera handiagoa izango dutenak ere: %4,5 igoko dira ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ekonomia jardueren gaineko zerga; %3 igoko dira, berriz, hirilurren balioen gehikuntzaren gaineko zerga, hilerriko zerbitzuaren tasa eta taxien lizentzia tasa.

Inma Beristain alkateak adierazi zuenez, "herritarrendako gogorra da oraingo egoeran zergak eta tasak igotzea, baina udalak zor handia du eta horri erantzuteko bide bakarra da zergekin dirua jasotzea". EAJ abstenitu

egin zen bozketan, "inprobisazioz tratatu" delako igoera. "Udalaren egoera ekonomikoa ez da ona eta igoerak beharrezkoak diren heinean egin behar izaten dira, baina kontuz eta argi izanda nola eragingo duten hurrengo urteko aurrekontuetan".

## Idea lehiaketako irabazlea

Era berean, herriko armari-simboloaren ideia lehiaketak saria Andoni Larrañagari ematea onartu zuten bilkuran Bilduko aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin. Kultura batzordean erabakiko dute orain zein prozedura jarraitu armarrira aldatzeko.



Ordenantza fiskalen gaia eztabaidatzen, eguaztenean bilkuran. | USOA AGIRRE



Gurpil-aulkiko pilotariak partidu baten. | GIPUZKOAKO EUSKAL PILOTA FEDERAZIOA

## Gurpil-aulkiko gomazko paleta txapelketa bihar

Lehen aldiz antolatu dute txapelketa; bigarren jardunaldia jokatu dute Antzuolan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Aurtengo ikasturtean txapelketa berria antolatu dute Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak: gurpil-aulkiko gomazko paleta txapelketa. Urriaren 22an jarri zen martxan Usurbilen eta abenduaren 17an izango da finala Lasarten. Bitartean, beste bi jardunaldi jokatu dira: Antzuolan zapatuan, azaroak 5; eta Zegaman azaroaren 19an.

Gipuzkoako sei pilotari ari dira lehian: Edurne Unamuno, Andoni Aizpelea, Urko Peña, Patxi Fadrique, Edorta de Anta eta Beñat Lizaso. Antolatzaileek gogorarazi dute parte-hartzea zabalik dagoela edonorentzat: "Pilotari ezinduak ez direnek ere jokatu ahal izango dute, betiere ordezko postua hartuz

eta gainontzekoek bete beharreko joko araudi berak betez". Izan ere, integrazioa bultzatu nahi du ekimenak.

## 25 tantora

Lehenengo hiru jardunaldietan hiru bikoteren arteko ligaxkak jokatu dira. Partidu guztiak 25 tantora dira. Mollepelle urdina pilotarekin eta errefortzu gabeko paletarekin jokatu dira. Pilotariak airez, bote baten ondoren eta bigarren botearen ondoren jo dezakete pilota.

Lehendabiziko hiru jardunaldien sailkapena kontuan hartuz bikoteak berriro antolatu eta laugarren jardunaldian bikote horien arteko azken ligaxka egingo da.

Antzuolako jardunaldia bihar, zapatua, 11:00etan jokatu da herriko pilotalekuan.

## Gazte txokoa irekiko dute zapatuan, 12-15 urteko gazteendako

Uda partean itxita egon ostean, bihar, zapatua, irekiko dute Eguzki auzoko gazte txokoa. 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik zapatu eta domeketan, eta askotariko ekintzak egiteko aukera egongo da: eskulanak, jolasak, sukaldaritza... Sei begirale eta koordinatzaile bat arituko dira lanean. DBHko 1. mailatik 3.era bitartekoendako dago zabalik.

## Interneti buruzko hitzaldia eguaztenean erretiratuen elkartearen

Datorren eguaztenean, azaroak 9, Internet: mundu irekia izeneko hitzaldia izango da erretiratuen elkartearen, 17:30ean. Bestalde, azaroaren 27an, domeka, gaztaina-erre eguna egingo dute erretiratuek. Elkartetik adierazi digutenez, ospakizun horretan parte hartzeko izena eman beharra dago aurretik.

## OHARRAK

### PILOTA

Mendizabal III.a antzuolarrak Lemunoren aurka jokatu du gaur, 22:15ean, herriko pilotalekuan. Promozioko lau terdiko txapelketako finalerdietako ligaxkako bigarren partidua jokatu dute. Lehenengo 22-11 irabazi zion Mendizabalek Ongayri. Txapelketako partiduaren ostean binakako partidua jokatu dute Gonzalez eta Zabaletak Aritz Lasa eta Peñagarikanoren aurka. Olaldeko pilotariei dagokienez, Manex Balerdik zapatuan 16:00etan jokatu du buruz buru Azkoitia 4ren kontra.

### FUTBOLA

Bestalde, erregional preferente mailako taldeak etxean jokatu du bihar, zapatua, 16:00etan, Soralezeko taldearen kontra. Soraluze lehenengo dago sailkapenean; Antzuola, berriz, hirugarren. Kadeetek ere etxean jokatu dute Aloña Mendiren kontra bihar, zapatua, 11:00etan.

## Toloñora irteera Arrolarekin

Joan den domekan Errioxan mendi-irteera egin zuten Arrolakoek. Pista, pagadi, zelai eta harkaitzak zeharkatuz iritsi ziren Toloño gainera. Eguraldi "zoragarria" izan zuten eta "giro mundiala", Arrolakoen esanetan.



ARROLA MENDIZALE TALDEA

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aulkien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a.

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia

**Buztinzuri 13 ANTZUOLA**  
Tel.: 943 78 70 32

**ANTZUOLA**  
Apainketak eta solamenduak  
• Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

# Bertxoko: irakaslea eta ikaslea, maila ona ematera

Atzo hasi zen sariketa; Igoa hilaren 18an eta Amilburu hilaren 11n

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Atzo hasi zen 2011ko Bertxoko sariketa. Lehen saioa Gasteizko Errexala elkartearen izan zen. Bertsolari gazteei plazak ematea eta Arabako entzuleriari saio dinamiko, fresko eta animatuak eskaintzea da ekimenaren helburua.

Paula Amilburuk eta Xabi Igoak osatuko dute Aramaioko ordezkaritza. Ondo ezagutzen dute elkar; izan ere, bada urte eta erdi Igoa Amilbururen irakaslea dela Aramaioko bertso eskolan. Hala, irakaslearendako ez da lehen aldia izango, ezagutzen du sariketa: "Giro ederra egoten da, bai horixe. Berezitasunak ditu, gainera. Adibidez, hasierako agurra puntuagarria da eta abesti ezagunen baten doinuak oinarrituz egin behar da bertsoa. Egon naizen saioetan denetarik



Xabi Igoa. | MIRIAN BITERI



Paula Amilburu. | MIRIAN BITERI

doinuak erabili izan dira: *Dorae-mon*, *Shin Chan* eta *Gozategi, esaterako*". Paula Amilburu, berriz, lehen aldiz izango da Bertxokon: "Zaila izango da eta urdu-ri egongo naiz. Ondo pasatzera noa, eta ahalik eta ondoen egitera; badakit ez naizela finalera pasako. Bertsolari onak daude eta sariketa ezagutzera noa".

## Afarian izena emateko

Saio guztiak afalostean izango dira; afaria 20:30ean hasiko da eta saioa, berriz, 22:30ean. Afarirako, saioa baino bi egun lehenago eman behar da izena. Bi modu daude: 675 70 79 71 telefonora deituta edo [araba.sustapena@bertsozale.com](mailto:araba.sustapena@bertsozale.com) helbide elektronikora mezua bidalita.

## Omenaldiak, opariak eta giro ederra nagusi erretiratuen jaian

J.B. | ARAMAIO


Joan den zapatuan ospatutako Erretiratuen Eguna ondo baino hobeto irten zen. Baserritar eta artisau azoka eta ganadu feria izan zen eguneko eskaintzarik aipagarriena. Herriko eta kanpotik etorritako baserritarren eta artisauen eskaintza zabala, abesbatza, dantzariak, trikitalariak eta txistulariak... denetarik izan zen. Eguraldia lagun, harrera ezin hobea egin zioten aramaioarrek eta kanpotik etorritako bisitariek.

Hori bai, azokak eta gainerako ekitaldi guztiek Aramaio-ko erretiratu guztiak omentzea zuten helburu. Hala, Udaleko ordezkariek Aramaio-ko pertsona edadetuenak omendu zituzten: duela 95 urte Cuatrocientos baserrian jaiotako Bittori Garai eta orain dela 93 urte Ibabe baserrian jaiotako Balentin Ibabe. Garai Arrasateko Iturbide egoitzan omendu zuten, lore sorta batekin. Ibabe, berriz, haren etxean: bertan izan ziren, besteak beste, Ramon Ajuria alkatea eta Edurne Uribarren-Iturrieta Ongizateko zinegotzia; txapela opari egin zioten.

## Benidormerako bidaiak, Oletara

Bestalde, kiroldegian egindako bazkarian 125 lagun elkartu ziren, Aramaio-ko eta inguruetako erre-

tiratuak. Bapo bazkaldu ostean Benidormerako bidaiaren zozketa heldu zen. Bada, Oletako Mantsoa baserriko Amparo Armendariz izan zen irabazlea. Astebete osorako bidaiak irabazi zuten Armendarizek, 65 urte baino gehiago dituzten bi pertsonarendako. Hiru izarreko hotel batera joango dira, zazpi gau eta zortzi egun.



Bittori Garai, 95 urte. | LOPEZ DE BERGARA



Balentin Ibabe, 93 urte. | LOPEZ DE BERGARA

## Errezilgo kooperatiba bat ezagutzeko izena eman daiteke oraindik

Errezilgo frutekin marmelada egiten duten emakumez osatutako kooperatiba bat ezagutzeko irteeran izena eman daiteke oraindik, irteera egunera arte. Bihar, hilak 5, 09:00etan irtengo dira, pilotalekutik. Helburua da haien kasua ezagutu eta Aramaion aplikagarria den baloratzea.

## Zuiako Koadrilako orri-markagailu lehiaketa abian da

Martxan da Zuiako Koadrilako liburuendako orri-markagailu lehiaketa. Aurten ere lau maila egongo dira, adinaren arabera: 2-10, 11-14, 15-17 eta 18tik gorakoak. Lanak azaroaren 18ra arte aurkez daitezke, Murgian. Lehen saria 150 euro da. Argibide gehiago 945 43 01 67 telefonoan.

## 45 haur eta guraso Tellamendira: egun borobila

Aramaio-ko guraso elkarteak irteera egin zuen joan den domekan. 45 haur eta guraso joan ziren Tellamendira, eta, eguraldia lagun, ederto ibili ziren, adierazi digutenez: "Eguraldia primerakoa izan zen eta giro paregabean ibili ginen. Oso ondo pasatu genuen; hurrengo irteera antolatzeke gogoz geratu ginen".



AIZPEA AJURIAGERRA

Azaroaren 5etik aurrera, egunkariarekin

# Mantangorriren eskulan tailerra

24 fitxaz osatutako eskulan bilduma

Adina: 6-12 urte

sortuz jolasteko, jolastuz sortzeko

4 FITXAZ OSATUTAKO 6 SORTA  
Azaroak 5, larunbata,  
lehenengo sorta  
BERRIA + 3,5 €

karpeta eta ariketen CDa OPARI

## Nola eskuratu?

Azaroaren 5etik abenduaren 10era, larunbatero kioskoan, BERRIArekin

BERRIArekin  
BERRIArekin

Egilea: Karmelo Cruz

## ELGETA

# 175.000 euro ordainduko du Udalak Domingo Iturbe eraikina

Udal tasa eta ordenantza fiskalak %2,8 igoko dira datorren urtean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eraikina eta lurra erosi dituzte Udalak eta adostuta daude bai salneurria bai ordainketa epea. Udaltzako eguazteneko osoko bilkuran eman zion onarpena hitzarmenari. Hala, Udalak 24 urte izango ditu Domingo Iturbe Fundazioari 175.000 euro ordaintzeko; 6.000 euro urtean 2013. urtean hasita. Gainerako 31.000 euroak azken ordainketa batean egingo ditu Udalak edo ordainketa horren epea gehiago luzatzeko aukera izango du.

Hitzarmenak jasotzen duenez, hainbat arazoengatik Udalak ordainketa horiek egiteko arazoak baditu, eraikina Fundazioari itzuliko zaio eta ordura arte egingo erabilereengatik salneurriaren erdia –hau da, 87.500 euro– jasoko du Fundazioak.

Bada, eraikinaren jabe izanda, Udalak orain argi berdea du

ingurua urbanizatzeko lanak hasteko. Alkateak ez zuen data zehatzik esan, baina hasiera berehalakoa izango dela adierazi zuen. Aurreikusitako moduan, Bergarako Goitu enpresak egingo ditu lanak. Eguazteneko osokoan 407.000 euroko esleipena onartu zuen udaltzako aho batez, eta baldintzen artean jasota gelditu da lanek amaituta beharko dutela abenduaren 16rako.

## Ordenantza fiskalak

Datorren urtean udal tasa eta ordenantza fiskalak %2,8ko igotzea izango dute. Udaltzako aho batez onartu du erabakia. Salbuespena egin dute kiroldegiko zerbitzuekin; ez da igotzerik aplikatuko. Bonifikazio berri bat ere sortu dute ludoteka eta gazteleku zerbitzuendako; aurrerantzean familia bakoitzaren diru-sarrerak kontuan hartuko dira.

## Hiru mozio

Eguazteneko bilkuran udaltzako hiru mozio izan zituen mahai gainean: lehenengoa ETAk armak uzteko egingo iragarpenarekin lotuta, Oxel Erostarbe alkateak aurkeztutakoa. Aralarren eta EAJren aldeko zazpi boto lortu zituen mozio horrek. Bilduko hiru zinegotziak abstenitu egin ziren; adierazpen batean azaldu zuten oraindik ere urrats asko egin behar direla bakea lortzeko.

Beste bi mozioak –biak Patxi Basaurik aurkeztutakoak– aho batez onartu zituen udaltzako. Lehenengoak eskatzen zuen Debagoiengo ospitalearen proiektua hasiera batean onartu zen moduan gauzatzeko; murrizketarik gabe, alegia. Bigarrenak, berriz, Des-kargako tunelaren lanak ez gelditze eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

# Bihar arratsaldean sailkatuko dituzte domekako erakusketarako perretxikoak

LZ. | ELGETA

Elgetako Udalak urteroko lantaldearen babesarekin egingo du domekan perretxiko erakusketa. Dena den, herritarrak erakusketarako perretxikoak batzera animatzen ditu. "Edonorendako ekimena da; haur, gazte, heldu nahiz nagusiak animatzen ditugu", adierazi dute Turismo eta Kultura batzordeetatik.

Aurtengo edizioan ere ahalik eta perretxiko barietate zabalena erakustea dute helburu; hala, perretxikorik batuz gero zapatu goiza baino lehen kultura etxeko zeramika gelara eramateko eskatu dute. "Bertan dagoen izozkailuan gordeko ditugu", adierazi dute. Zeramika gela itxita egonez gero, giltza kioskoan edo udaletxean eska daiteke.

Erakusketa domeka eguerditik aurrera egongo da ikusgai Herriko Plazan. Aurretik, baina, perretxikoak banatu, sailkatu eta iden-



Perretxiko onak eta txarrak erakutsiko dituzte domekako erakusketan. | LZ

tifikatu egin behar dituzte. Lan hori guztia bihar arratsaldean egingo dute.

## Pintxo lehiaketa

Urteroko perretxiko erakusketarekin batera pintxo lehiaketa ere egingo da domekan. Eguerdian

hasiko da eta epaimahaikideek tabernetan bertan epaituko dituzte pintxoak. Sariak plazan banatuko dituzte.

Bestalde, 10:00etan bisita gidatua egongo da lubakietara eta eguerdian trikitilariak ibiliko dira herrian.

## LEINTZ GATZAGA

# Uso asko pasatu zen astelehenean eta ehiztariak gustura ibili dira

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

"Iaz ezer harrapatu barik geratu ostean ehiztariok gose handia geneukan eta ase dugu gose hori", jakinarazi du Gatzagan egoten den ehiztari batek. Hain zuzen, astelehenean, urriak 31, uso mordo pasatu zen eta Gatzagako bazterretan elkartutako ehiztariak gura beste harrapatu zituzten.

Bai urrian, bai azaroko lehen egunotan hego haizea izan da nagusi, eta horrek uso asko ekarri du gurera, baita birigarroak ere: "Urriko egun pare batean birigarroak etorri ziren, mordo". Oraingoan usoak izan dira; ehiztari askok dozenako sortak zituzten astelehenean, eta beste batzuek hogeitik gorakoak.

## Onena pasatuta

Usoen eta birigarroen ehizak aurtengo onena eman duela jakinarazi dute ehiztariak, nahiz eta egunotan ere dezente pasatuko direlakoan egon. Ehiza federazioaren ardurapean dauden postuetan zozketak azaroaren 20a artean egingo dituzte –Arrasateko Eroskiko tabernan– baina, ordu aldatuta tarteko, gero eta zailagoa izango dela halako uso kopurua ehizatzea uste dute. Ehiza denboraldia Gabonak artean izango da zabalik.

## VIII. PILOTA TXAPELKETA

### AZKEN EMAITZAK

Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi	21-22
Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal	22-11
Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe / Garikoitz Arrazola - Mikel Ormaetxea	22-11
Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga	22-20
Angel Ibarluzea - Alberto Telleria / Alex Arantxabal - Iñaki Izaqirre	16-22

### BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

Pello Larrea - Mikel Elkorro / Asier Morales - Koldo Goenaga
Ibai Etxaniz - Jon Irazabal / Ibon Untzetabarrenetxea - Mikel Beretxinaga
Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre / Satur Ramos - Mikel Arkarazo
Oskar Sarasua - Iñaki Olaortua / Iker Irazabal - Diego Cantabrana
Iban Retolaza - Xabier Larrañaga / Antxoka Etxabe - Igor Irazabal

### DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00ETAN

Odei Zenitagoia - Andoni Elortza / Mikel Ormaetxea - Garikoitz Arrazola
Oskar Askasibar - Haritz Gallastegi / Sergio Bouzas - Koldo Erostarbe
Iker Irazabal - Diego Cantabrana / Iban Retolaza - Xabier Larrañaga

## Azaroaren 20an Elgetako hauteskunde-mahaian egongo diren herritarrak izendatu dituzte

Zozketa egin ostean presidente kargurako Aitor Gantxegi izan da izendatua. Haren ordezkioak Jon Kortajarena eta Guillermo Gartzia dira. Lehenengo bokala Amagoia Irazabal izango da; haren ordezkioak Zuhaitz Uzuriaga eta Maite Elkorro dira. Azkenik, bigarren bokala Raquel Teran da; haren ordezkioak, berriz, Saturnina Peñalver eta Hariz Gallastegi dira.

## Esne Beltza taldeko mutilak Espaloian izango dira gaur eta jendea dantzan jartzera datozela esan dute

Xabier Solano eta haren taldekideak parranda gosez omen datoz gaur Elgetara. Ez da Espaloian jotzen dute lehenengo aldia, eta, aurrekoan egin zuten moduan, jarraitzaileak dantzan jarri nahi omen dituzte oraingoan ere. Kontzertua 22:30ean hasiko da. Sarreraren prezioa leihatilan 10 euro izango da; alde zurretik erosiz gero, zortzi euro; eta bazkideendako, zazpi euro.

## Zapatu goizerako Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin dute

Jendea behar da bihar goizean Egoarbitzako herri basoa garbitzen laguntzeko. Udalak dei egin du 08:30ean Herriko Plazan elkartzeko, eta bertatik abiatuko dira Egoarbitzara. Eskatu dute, gainera, aukera izanez gero erreminta eramateko; esaterako sasi-garbitzeko makinak. Jakinarazi dutenez, hamarretakoa Udalak ipiniko du.

## Xalbadorpe erretiratuen elkarteak gaztaina-erre jana egingo du gaur, barikua, 18:30ean

Urteroko hitzordua da eta azaroarekin batera iritsi da oraingoan ere. Xalbadorpe elkarteak zuzendaritza batzordetik jakinarazi dute bazkide guztiak daudela gaztaina-erre janean parte-hartetara gonbidatuta. Ozkarbi elkartearen izango da, gaur, barikua, 18:30ean.

## Astelehenean eta hilaren 21ean izango da zabalik KZgunea

Bi astelehen arratsaldetan (16:00-20:00), hilak 7 eta 21, izango da Aitor Madrid dinamizatzailea KZgunean. 16 urtetik gorako herritar guztien kezak argituko ditu eta ikastaro gogoia dutenendako eskaintza zabalik ekarriko du: sare sozialen nondik norakoak, Googlek eskaintzen dituen tresnak...

## San Milixan parrokiaren hasi dira esaten domeketako mezak

Udazkena aurrera doa eta behin azaroan sartuta domeka eguerditako mezak San Milixan parrokiaren hasi dira esaten (12:30), Dorletako santutegian beharrean. Martitzenean, Domu Santu eguna, izan zen lehengo eta datorren maiatza artean esango dituzten mezak parrokiaren Martin Mendizabal fraideak.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ez / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ez.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Arte kale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ez. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

### TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ez / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ez. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.





Atletak, iaz, Osintxuko harrizko zubitik pasatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

**ATLETISMOA**

# Antxintxika krosa bostehun atletarekin

**XABIER URTZELAI** | BERGARA  
 Bihar, zapatua, egingo dute Antxintxika krosa, Servimasa sari nagusia. Eta, zazpigarren edizio honetan Olatz Rementeriarekin batera antolatzaileek Antxintxika Triatloi Taldeko kide izan zen Iban Altube ere izango dute gogoan.  
 Izen-emateari dagokionez, aurten ere zenbaki potoloak batuko dituzte: "Aste barruan dagoeneko 400 lagun baino gehiago zenbatu ditugu. Baina badakigu jendea azken momentura arte egoten dela zain; horrenbestez, aurten ere 500 lagun inguru batuko gara", adierazi digu Aitor Rementeriak.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan amaituko da izenemate epea, ([www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com))  
 Lasterketak 10 kilometro izango ditu, Soraluezetik Bergarara, eta aurten helmuga San Martin plazan jarriko dute. Iaz gurpildun aulkian korritzen dutenak izan ziren nobedade, eta aurten patinatzaileak gehituko zaizkie: "40 lagunetik gora etorriko dira patinekin".  
 Irteera puntura joateko lau autobus irtengo dira Bergaratik (15:30ean eta 16:00etan). Gurpil-aulkian dabilzanek 16:30ean hasiko dute proba, 16:50ean patinatzaileek eta 17:00etan korrikalariek.

**FUTBOLA**

## Aloña Mendiren eta Aretxabaletaren arteko derbia domekan

Aloña eta Aretxabaleta izango dira domekan aurrez aurre ohorezko erregional mailako bederatzigarren jardunaldian (16:30, Azkoagain). Bi ordezkarien artean Oñatikoek dute puntu premia handiagoa, eta duela 15 egun Real Unionen kontrako garaipenak utzitako sentazioak erreperatu nahi dituzte, etxeko bigarren garaipena lortuta. Bergarak eta Mondrak, berriz, Oiatzun eta Ondarroan jokatu dute, sailkapenean ondoan dituzten kontrario zuzen kontra.

**SASKIBALOA**

## Igartuaren mutilek Zubikoan eskuratu nahi dute hirugarrena

Aloña Mendik EBAn egin duen hasiera ikusita eta azken lau denboraldietako joera kontuan hartuta, bat baino gehiago hasi da esaten, brometan, Oñatikoek zilarrezko LEB mailarako aurrekontu bila hasi beharko dutela. Bi partidua irabazi ostean etxean lortu nahi dute bihar hirugarrena, Cafes Aitonaren kontra (18:00). Mondragon Unibertsitateak, berriz, egun eta ordu berean mailaz igotzeko hautagai Santurtzi hartuko du Iturripen.

**ASTEBURUKO HITZORDUAK**

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**  
 Rayo-Reala  
 Domeka, 18:00. Vallecás.

**EMAKUM. BIG. MAILA**  
 Mondra-Oiatzun  
 Zapatua, 16:00. Mojategi.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**  
 Aretxabaleta-Peña Ath.Santur.  
 Zapatua, 15:45. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
 Oiatzun-Bergara  
 Zapatua, 15:45. Oiatzun.  
 Aurrera-Mondra  
 Zapatua, 16:30. Zaldupe.  
 Aloña Mendi-Aretxabaleta  
 Domeka, 16:30. Azkoagain.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
 Aretxabaleta B-Zestoa  
 Domeka, 16:30. Ibarra.  
 Antzuola-Soraluze  
 Zapatua, 16:00. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA**  
 Mondra B-Aretxabaleta C  
 Zapatua, 16:00. Mojategi.

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA**  
 Mondra-Tolosa  
 Zapatua, 18:00. Mojategi.  
 Bergara-Aurrera  
 Zapatua, 17:30. Ipintza.

**EMAKUMEZKOEN LIGA**  
 Zarautz-Arizmendi  
 Zapatua, 17:45. Asti Txiki.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
 Eskoriatza-Eskolapiok  
 Zapatua, 18:00. Manuel Muñoz.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**  
 Aretxabaleta-Donibane  
 Gaur, 20:45. Almen.

**ESKUBALOA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**  
 Romo-Ford Mugarri Arrasate  
 Zapatua, 17:00. Areta.  
 Soralue BKE-Egia Kata  
 Domeka, 12:30. Labegarieta.

**EMAKUMEZKOAK PEF.**  
 Egia Bera Bera-Aloña Mendi  
 Domeka, 12:00. Donostia.

**LEHEN SENIOR GIZONEZK.**  
 Hegialde-Izarraitz Aloña  
 Zapatua, 19:15. Legazpi.

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**  
 Talleres Chapime-Amenabar  
 Domeka, 11:30. Iturripe.  
 Aloña Mendi-Tekniker Eibar  
 Zapatua, 16:00. Zubikoa.  
 Urrietako-Bergara  
 Zapatua, 16:30. Urnieta.

**GAZTE MAILA, EMAKUMEAK**  
 Bera Bera-Aloña Mendi  
 Zapatua, 16:00. Donostia.

**SASKIBALOA**

**EBA**

Aloña Mendi-Cafes Aitona  
 Zapatua, 18:00. Zubikoa.

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
 Mondragon Unibert.-Santurtzi  
 Zapatua, 18:00. Iturripe.

**LEHEN SENIOR GIZONEZK.**  
 Take Orbel Tab.-MU  
 Zapatua, 18:00. Tolosa.  
 Soralue BKE-Santo Tomas L.  
 Domeka, 17:30. Labegarieta.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**  
 MU-Araberri  
 Domeka, 18:00. Iturripe.

**EMAKUMEZKOAK**  
 Murkil Zast-Eskoriatza  
 Zapatua, 20:00. Antonianos.

**ATLETISMOA**

**ANTXINTXIKA KROSA**  
 Zapatua, 17:00. Soralue.  
 Gurpildun aulkikoak 16:30ean irtengo dira.

**TENIS-A**

**SANTAMASETAKO TXAPELK.**  
 Zapatua eta domeka, Musakolan.

**PALA**

**GURPILDUN AULKIKO LEHEN**  
**PALA TXAPELKETA**  
 Zapatua, 11:00. Antzuola.

**PILOTA**

**BIGARRREN MAILAKO LAU**  
**T'ERDIKO TXAPELKETA**  
 Lemuno-Mendizabal III.a.  
 Egubakoitza, 22:15. Antzuola.

Mitarte 5 | 20550 Aretxabaleta | Gipuzkoa  
[www.m5denda.com](http://www.m5denda.com)  
 Telf: 943.54.09.55

# AZAROAK 07 ATEAK ZABALTZEN DITUGU

ARRATSALDEAN

**%10EKO**  
**DESKONTUA**  
**LEHENENGO ASTEAN**

Gure marka batzuk  
 ○ sport moda

○ mendia eta eskalada

○ trail running

ARCTERYX

TERNUA

ASTORE

BEAL

Bestard

Black Diamond

diamir

CEDRID

GRIFONE

LA SPORTIVA

PETZL

VAQUO

THE NORTH FACE

SALOMON

MERRELL

KEEN

FALKE

Marmot

MOUNTAIN HARD WEAR

ROCK PILLARS

# 'Mujeres frontera' musika ikuskizuna bihar Amaian

Emakumeek Ciudad Juarez hirian bizi duten egoera salatzen du lanak

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE  
Mujeres Frontera proposamen ezohikoa da, berezia (Zapatua, 20:00). Berez musika ikuskizun bat da, baina zortzigarren arteak, argazkilaritzak, lagundutako ikuskizuna. Lau dira abeslariak, denak emakumezkoak, eta ikuskizuna Yamila Perezen 90 erretraturekin dago osatuta. Erretratuak erakusteko, baina, bere gorputz biluzia erabiltzen du Perezek euskarri modura.

**Biolentzia emakumeen kontra**  
*Mujeres frontera* ikuskizuna Mexikon, AEBtako mugatik gertu dagoen Ciudad Juarez hiriko emakumeek sufritzen duten biolentzia bortitza salatzen dator. Ciudad Juarez adi-

bide gisa erabiltzen dute, hango gizarte patriarkal eta matxistaren eredu, mafiei lotutakoa. Baina Ciudad Juarezeko ereduak Chihuahuako edozein hiritan balio dezake.

Datu ofizialen arabera azken hamarkadan 100 emakume erail dituzte hiri horretan, eta 70 emakume desagertuta daude. Datu ez ofizialek errealitate gordina goa erakusten dute: hamar urtean

350 emakume hil dituzte, eta 400 dira desagertuak. Eta hori guztia hiri bakarrean; emakume izateagatik.

## Lau ahots, batuta

Egoera hori salatzeko lau ahots izango ditugu bihar Amaiako taulagainean: Sara Van, Lou Garx, Chiqui Perez eta Roxana Rio. Eta agertokian lagun izango dituzte Luis Fernandez, Jose Gomez, eta Mardeco Gueblon. Abestiekin batera Yamila Perezek bere gorputzeko azala erabiliko du erretratuak erakusteko: "Ez dugu hango emakumeen egoera aldatuko, baina artistok horrelako gertakariak kontatzeko, salatze beharra izaten dugu; ezin gara isilik geratu".

**Ciudad Juarez  
hamar urtean  
350 emakume  
hil dituzte**



Yamila Perezek bere gorputza erabiliko du erretratuak erakusteko. | YAMILA PEREZ



## Oparitu Goiena Klubeko txartela.

goienakluba

- ✓ Asteleheneko Goiena Papera etxean jaso.
- ✓ Beherapenez gozatu (eskela eta sailkatuetan deskontuak).
- ✓ Zozketa eta promozioetan parte hartu.
- ✓ Asteleheneko Goienaren edizio digitala Goiena.net-en.

**Abantailaz betetako kluba!**

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [www.goienakluba.com](http://www.goienakluba.com)

## Esne Beltza taldea parranda gogoarekin dator gaur Elgetako Espaloira

22:30ean hasiko dute kontzertua; sarrerak 10 eurotan daude salgai

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE  
Xabi Solanok eta haren taldeki-deek dantzan jarriko dituzte gaur Espaloira joaten direnak. Ez da lehenengo aldia Esne Beltza taldea Espaloira datorrena. Azkenengo aldiz ere jendea dantzan jarri zuten. "Oraingoan, jendea dantzara ere joango da, seguru, Esne Beltzako jendea parranda gosez dator-eta Elgetara", diote Espaloiko webgunean. 22:30ean hasiko da kontzertua eta sarrerak 10 eurotan jarri dituzte salgai.

**Musika beltza zuriek abestuta**  
Horixe da Esne Beltzak egiten duena. Euskaraz, gainera. Nahiz eta abesti eta estrofa batzuk gaztelaniaz, ingelesez eta portugesez ere abesten dituzten. Solano bera bezala, Fermin Muguruzarekin batera aritutakoak dira taldeko kide asko; Kontrabanda taldeko musikariak ere badaude.



Esne Beltzakoak, Espaloian, 2008an. | JOSETXO ARANTZABAL

### Askotariko estiloak

2008an atera zuten lehenengo diskoa, *Made in Euskal Herria*. 2009an hainbat taldekidek CD+DVD bat grabatu zuten *Esne Zopak-Esnesaltzailearena* tituluarekin. Diskoa trikitiaren mun-

duari eskainia zegoen eta estilo horretako abestiz osatua. DVDan hainbat trikitiariri egindako elkarrizketak agertzen ziren. 2010ean taldeak bigarren diskoa atera zuen, *Noa* izenekoa, eta arrakasta lortu duena.

## Nothink eta Humus taldeak gaur Arrasaten; Electric Boys eta Jukebox bihar Oñatin

X.U. | ARRASATE

Gaur, egubakoitza, 22:30ean hasita Arrasateko gaztetxean Madrilgo Nothink eta Tolosako Humus taldeek kontzertua eskainiko dute. Madrildarrek zeresan handia eman dute nazioartean, eta Arrasaten azken diskoa aurkeztuko dute, *Hidden State* izenekoa.

### Electric Boys, Oñatin

Gaztemaniak!-ek antolatuta, zapatuan gaztelekuan (22:30) Electric Boys suediarrek joko dute. 2010ean kaleratutako *And Them Boys Done Swand* azken diskoa aurkeztuko dute. Eurenkin batera taula gainean egongo dira Jukebox arrasatearrak *Puertas del infierno* lanaz.

## 'Baginaren bakarrizketak' lana antzeztuko dute gaur, egubakoitza, Zabalotegin

E.A. | ARRASATE

Txalo antzerki taldeak *Baginaren bakarrizketak* lana antzeztuko du gaur, egubakoitza, Bergarako Zabalotegi aretoan. 22:00etan hasiko da. Obraren helburua da "emakumeak euren sexualitatearekiko sentitu eta sentitzen dituzten erru eta lotsa sentipenetatik libre uztea", Txalokoe euren diotenez. Ainhoa

Garai arrasatearra eta Aitziber Garmendia dira aktoreak.

Obra hori gehien antzeztu den testu garaikideetako bat da, eztabaida piztu eta moldeak apurtzen dituena. Gainera, lotsarik barik, argi eta garbi azaltzen du zelakoa den emakumeen sexualitatea, "umorea, samurtasuna eta, tarteka, izua adierazita".







### Jose Luis eta Anita

Jose Luis Rodrigo eta Anita Etxebarriarteun 1961eko azaroaren 4an ezkondu ziren. Zapatu honetan ospatuko dituzte urrezko ezteiak familiarekin batera. Zorionak eta urte askotarako!



### Gorka eta Maddalen

Gorka Arenaza eta Maddalen Barriola oñatiarrak gaur, egubakoitza, azaroak 4, ezkonduko dira. Familiaren eta lagunaren partetik, zorionak eta ondo ibili eztei-bidaian!

## HILDAKOAK

**Clotilde Morales Aceiton.** Arrasaten, urriaren 27an. 88 urte.

**Angel Mardaras Cilartegui.** Bergaran, urriaren 27an. 67 urte.

**Jesusa Muruamendiaraz Garitano.** Bergaran, urriaren 28an. 83 urte.

**Rufino Arana Ibaibariaga.** Arrasaten, azaroaren 1ean. 74 urte.

**M. Pilar Agirrebalzategi Arejolaleiba.** Oñatin, azaroaren 1ean. 69 urte.

**Jose Maria Arteaga Goenaga.** Bergaran, urriaren 31n. 82 urte.

## URTEURRENA

### Angel Otaduy Echevarria

'Iramendi'



Gasteizen hil zen 2010eko azaroaren 3an, 68 urte zituela.

Haren emaztea: Puri Tristan. Seme-alabak: Miguel Angel eta Laura; eta Arantza. Anai-arrebak: Juan Jose eta Marina; Luis eta Pilar; Charo (Jose Antonio Araneguiaren alarguna); Puy eta Julian; Manolo eta Toñi; Javier eta Carmen. Iloba, osaba-izeba, lehengusu eta gainerako senideek dei egiten dizute eta arren etor zaitezte!:

zapatuan, azaroaren 5ean, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan izango den lehen urteurrenko mezara.

**Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

## URTEURRENA

### Felix Salamanca Garicano



Arrasaten hil zen 2010eko azaroaren 4an, 44 urte zituela.

Lehen urteurrenko meza domekan, azaroaren 6an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da.

*Betiko izango zaitugu gogoan elkartuko garen esperoan.*

**Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.**

## ESKER ONA

### Maria Pilar Agirrebalzategi Arejolaleiba

Manuel Esnaolaren alarguna



Oñatin hil zen 2011ko azaroaren 1ean, 69 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2011ko azaroaren 4an.

## ESKER ONA

### Angel Mardaras Cilartegui



2011ko urriaren 27an hil zen, 67 urte zituela.

Hileta- elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Beti gogoan izango zaitugu.*

Bergaran, 2011ko azaroaren 4an.

## ESKER ONA



### Jose Maria Arteaga Goenaga



2011ko urriaren 31n hil zen.

Lerro hauen bidez Jose Mariaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2011ko azaroaren 4an.

## GOIENAN ESKELA JARTZEKO

DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05.

EDO ZATOZ ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.

Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

### ARRASATE

Goiena: Otalora lizentziaduna 31.  
943 25 05 05.

### OÑATI

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9.  
943 78 10 65.

### ARETXABALETA

Goiena: Durana 11.  
943 79 86 21.  
edo: Basabe poligonoa E05.  
943 25 05 05.

### ARAMAIO

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11.  
945 44 50 22.


### ELGETA

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2.  
943 76 80 98.

### ANTZUOLA:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1.  
943 76 60 62.





MUJERES FRONTERA

**ARRASATE Nothink**

Nazioartean oihartzun handia lortu duen Madrilgo Nothink taldeak *Hidden estate* diskoa aurkeztuko du Arrasateko gaztetxean. Bidelagun Tolosako Humus taldea izango dute, rock metaleroa jota. Kooltur Ekintza taldeak antolatu du kontzertua.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean



MYSPACE

Maria Arizmendiarrrietaren gaineko mahai-ingurua egingo dute.

Azaroaren 7a, astelehena, Arkupeko Zaria aretoa, 19:00etan

**OÑATI 'Harriola Marriola' ipuin kontaketa**

Koldo Amestoy kontalariak ipuinak kontatuko ditu. Helduendako saioa da. Oñatin Harriola Marriola izeneko ipuin kontaketa eskainiko du.

Azaroaren 9a, eguaztana, Liburutegian, 19:00etan

**ZINEMA****ARETXABALETA 'Urte berri on, amona!' filma**

Telmo Esnalek zuzendutako *Urte berri on, amona!* euskarazko filma emango dute. Sarrera 2 euro da.

Azaroaren 4an eta 5ean, 22:00etan; azaroaren 6an, 19:30ean; azaroaren 7an, 16:00etan. Zaria aretoa.

**ARETXABALETA 'Cars 2' filma**

Umeendako *Cars 2* filma eskainiko dute. Sarrera, 2 euro.

Azaroaren 5a, zapatua, Arkupeko Zaria aretoa, 17:00etan

**DEIA****ARRASATE Kantu Poteoa**

Portaloikultura elkartearekin. Azaroaren 4a, egubakoitza, Portaloian, 19:30ean.

eta domeketan 12:00etatik 14:00etara.

Azaroaren 4a, egubakoitza, Aroztegi aretoa, 18:00etan

**ELGETA Perretxiko erakusketa**

Plazan, herritarrek batutako perretxikoak ikusgai.

Azaroaren 6a, domeka, Elgetako plazan, 12:00etan

**HITZALDIAK****BERGARA 'Hizkuntza, bideak eta zubiak' hitzaldia**

Hizlaria Jon Sarasua izango da. Sarasuak ahots propioa du eus-kalgintzan. Huhez in irakaslea da

eta, horrez gain, hainbat kooperazio-egitasmotan sartuta dago; besteak beste, Garabide elkartean.

Azaroaren 9a, eguaztana, Irizar jauregian, 19:00etan

**ARRASATE 'Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura' hitzaldia**

Bularretik mintzora ekimenaren barruan *Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura* hitzaldia eskainiko du Juan Kruz Igarabide idazleak.

Azaroaren 9a, eguaztana, Kulturaten, 18:00etan

**ANTZUOLA Hitzaldia: 'Internet: mundu irekia'**

Erretiratuen elkarteak antolatuta.

Azaroaren 9a, eguaztana, erretiratuen elkarteetan, 17:30ean

**BESTELAKOAK****ELGETA Erretiratuentzako gaztaina-erre jana**

Elgetako Xalbadorpe elkarteak antolatuta. Bazkide guztiak daude gonbidatuta.

Azaroaren 4a, egubakoitza, Ozkarbi elkarteetan, 18:30ean

**ELGETA Baso lana auzolanean**

Egoarbitzako herri basoa auzolanean garbitzeko dei egin du Udalak. 08:30ean Herriko Plazan elkartuko dira eta bertatik abia-

tuko dira Egoarbitzara. Eskatu dute, gainera, aukera izanez gero erreminta eramateko; esaterako, sasi-garbitzeko makinak. Jakinarazi dutenez, hamarretakoa Udalak ipiniko du.

Azaroaren 5a, zapatua, Egoarbitza basoa, 08:30ean

**ELGETA Bisita gidatua, lubakietara**

Ezinbestekoa da aurrez izena ematea: 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net).

Azaroaren 6a, domeka, Espoioian, 10:00etan

**ARETXABALETA On Jose Maria Arizmendiarrrietaren gaineko mahai-ingurua**

Kooperatiben sorkuntzan zeresan handia izan zuen On Jose

**ALMACENES ARRASATE**

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK. Etxetresnetan sekulako eskaintzak! Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME  
2  
URTE

1000 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

ALF 1106 GARBIGAILUA

285 € aspes



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
6 Kg

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

3F-2612 GARBIGAILUA

315 € FAGOR



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
7 Kg

A<sup>+++</sup> Saikapen energetikoa

L-72750 GARBIGAILUA

385 € AEG



BERME  
2  
URTE

1200 b/min  
8 Kg

A<sup>+++</sup> Saikapen energetikoa

F-2812 GARBIGAILUA

430 € FAGOR



BERME  
2  
URTE

A Saikapen energetikoa

2LF-013SX ONTZI-GARBIGAILUA

395 € FAGOR



BERME  
2  
URTE

A Saikapen energetikoa

LABE PIROLITIKOA HOLLY-HP5X  
INDUKZIO PLAKA HOLLY-13S

625 € edesa



BERME  
2  
URTE

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

STA 1410 B/N LABEA ETA  
BITROZERAMIKA

360 € aspes



BERME  
2  
URTE

1440  
x  
545  
x  
600

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

ZEN-F211 HOZKAILUA

310 € edesa



BERME  
7  
URTE

"BRITA"  
OPARI  
1850  
x  
600  
x  
600

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

FFJ-6725 HOZKAILUA

575 € FAGOR



BERME  
7  
URTE

2000  
x  
600  
x  
600

A<sup>+</sup> Saikapen energetikoa

FFK-6835X HOZKAILUA

675 € FAGOR

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A<sup>+</sup> 70%  
A 45%  
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik. Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.



# goiena

2011-11-04

HARPIDETZA: ARETXABAETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

## Esne-gain eta txokolate bako tartak

- ▶ Aitziber Iglesiasek fardel-tartak egiten ditu jaioberriei opari egiteko; arrakasta handia dutela dio
- ▶ Denetariko oparitxoak gehitzen dizkio tartari: txupetea, biberioa, bodya, kolonia, sonajeroa...

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Fardelezko tartak egiten dira enkarguz dioten kartelak agertu dira azkenaldian Oñatiko kaleetan. Zer izango dira, ba, fardel-tarta horiek? Eta nor dago kartel horien atzean? Paperean ageri den telefono zenbakira deitu eta Aitziber Iglesiasek atsegin handiz eman dizkigu xehetasun guztiak.

Jaioberriei opari egiteko fardel-tartak egiten ditu, eta, antza denez, ideia berritzaile hori arrakasta handia izaten ari da. "Duela bi hilabete inguru hasi nintzen fardel-tartak egiten. Niri horrelako bat opari egin zidaten eta oso ideia originala irudi zitzaidan. Ni neu Zarautzen bizi naiz, baina familia daukat Oñatin; beraz, lotura daukat Debagoienarekin".

### Opari pertsonalizatua

Lagun eta senitartekoendako opari gisa hasi zen fardel-tartak egiten Aitziber Iglesias, baina, apurka-apurka, haren artelanak gero eta ezagunagoak egiten ari direla kontatu digu: "Oso pozik nago izaten ari diren erantzunarekin. Egia esan, oso opari originala da, horrelako momentu berezi batean emateko apro-



Aitziber Iglesias, fardel-tarta bat eskuetan dela. | REGALOSORIGINALES PARABEBES

posa. Gainera, nork bere nahietara eta aurrekontura molda dezake oparia. Izan ere, fardel-tarta oinarria litzateke eta gero oparitxoak gehitzen dizkiot horri: peluxe bat, adur-zapia, bodya, toalla txikia, silikonazko goilarrea, sonajeroa, jaboia, kolonia, txupetea, biberioa..."

Opari guztiak ez dira agerian geratzen, beraz; Iglesiasek berak esaten duen moduan, epe luzerako oparia da, tarta zabaltzen den neurrian gauza berriak agertzen dira-eta Prezioa, noski, gehitutako oparitxoaren arabera izaten da, baina, batez beste, 70 euro inguru izaten da (argazkian ageri dena, esaterako).

### Moda berria sortzeko asmoz

Aitziber Iglesias ez da geldik egoten den horietakoa eta azken bi hilabete hauetan han eta hemen zabaldu du bere ideia. [www.regalosoriginalesparabebes.blogspot.com](http://www.regalosoriginalesparabebes.blogspot.com) webgunea ireki du eta hainbat enpresarekin harremanetan jarri da produktuen berri emateko. Argi dauka bere tartek etorkizun handia dutela: "Ez dakit oraindik modan dauden, baina dakidana da modan jarriko ditudala".

### AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



## Aurrerapenaren kontra

Aurrerapena?", esan dit baserritarrak. "Lehen ez genuen urik etxean, baina ura dealde zen". Etxetik oso gertu zuten iturria. Ez zaio ondo iruditzen naturak emandakoa kobratzea. "Zaborrik ere ez dut sekula atera nik, eta hori ere pagatu egin behar!". Baserrian dena aprobetxatzen dela dio. Lehen, inork ez zuen ezer botatzen. "Behin Garbigunera joan nintzen, aulki bat ikusi nuen, eta ez zidaten hartzen utzi! Debekatuta dagoela!". Hori ere ez du ulertzen.

Zer eta nola birziklatu... eztabaida horrekin gabilta. Ahalik eta gehien birziklatu behar da, ados. Baina hori bezain inportantea da ahalik eta zabor gutxien sortzea, ala? Behar duguna bakarrik erostea gure esku dago, egia. Baina inguruak ez du laguntzen: zer egin erosi eta urtebetara mobila ez badabil? Gutxieneko iraupena exijitu beharko liekete ekoizleei. Bost urteko garantia izatea, adibidez.

Hori zaila da, bale. Kontsumoaren gurgila geratzea. Baina bada erraz egin daitekeen zerbait: berrerabilteza. Trukeguneak sor daitezke, erabiltzen ez ditugun objektuak hara eramateko. Pantaila lauho telebista erosi duzula? Ba eraman zaharra hara! Arropa, liburuak, altzariak, bizikletak, jostailuak... zernahi truka daiteke. Zuretzat zaharra dena berria izango da niretzat.



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatzu

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51